



Zaintza- eta (des)parekotasun-historiak

Etxeko lanetan
eta zaintzan diharduten
emakume migratzaileak

Aurkibidea

Eskerrak	3
Hitzaurre	4
Sarrera	6
1 Zaintza- eta (des)parekotasun-historiak. Etxeko lanetan eta zaintzan diharduten emakume migratzaileak	10
1.1. Eskubide urratze historiak	
1 Andy: Ez gara esklaboak	11
2 Resurrección: Egiten dugun lana defendatzea	13
3 Esperanza: Lan esplotazioa desagerraraztea	15
4 Victoria: Laneko jazarpenari aurre egitea	17
5 Digna: Ez erasotua, ez gaizki tratatua	19
6 Hurria: Erasorik, esplotaziorik eta diskriminaziorik ez	21
7 Fátima: Amatasun-baja izateko eskubiderik gabe	23
8 Dunia: Urdina eta beltza	25
9 Estrella: Neure burua defendatzen ikastea	27
10 Valienta: Salatzeko beldurra galtzea	29
1.2. Onak praktikatzen duzu empeladoras-a familie	31
1 Felicidad: Haurtzain, haur nintzenetik	32
2 Yanapai: Nire bigarren etxea	34
3 Corazón: Pozik nago hemen	36
2 Zainketa-lanei eta (des)parekotasunari buruzko kontakizunekin lotutako elkarrizketak.	39
2.1 Erronkak eta proposamenak	40
2.2 Etxeko langile eta zaintzaileen eskubideak	46
2.3 Links Interesgarri batzuk	48

ESKERRAK

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Ellacuria Fundazioaren Babelgo Dorrea taldeko emakume guztiei, gudan jarritako konfiantzagatik, eta etxeko langile eta zaintzaile gisa euskal gizartean izan dituzten bizi-esperientziak gurekin partekatzeagatik. Eskerrik asko Andy, Resurrección, Esperanza, Victoria, Digna, Hurria, Fátima, Dunia, Estrella, Valienta, Yanapai, Felicida y a Corazón, konplize eta protagonista izateagatik, bigabekeriaren, berdintasun-ezaren, diskriminazioaren, tratatu txarren, jazarpenaren eta beste indarkeria-modu batzuen aurrean gizarteari erantzuna ematea exijitzen dion ispilu izateagatik, indarkeria horiek guztiek haien bizitzetan eta gorputzetan eragiten dutelako, emakume, pertsona migratu eta etxeko langile eta zaintzaile diren heinean, eta haien senideenetan ere eragiten dutelako. Zaintza- eta (des)parekotasun-historiak gu geu garen gizartearen zati baten isla dira, eta errealitatea eraldatzeko gogoe-ta egitera eta ekintzak gauzatzera bultzatzen gaituzte. Pertsonen bizitza guztiaren erdian jarriko duen gizarte bat, bizitzari eusteko ezinbestekoak diren zaintza-lanei balioa eta duintasuna emango diena, eraikitze bidean urratsak egiteko.

Eskerrik asko, baita ere, pertsona boluntario guztiei, haien denbora, interesa eta empatia erabiltzeagatik emakume horietako bakoitzarekin hitz egiteko eta arretaz entzuteko, errespetuz, interesez eta benetako miresmenez.

Eskerrik asko berriz ere Babelgo Dorrea guneko emakumeei eta Zaintza- eta (des)parekotasun-historiak izenburuko Lantegia eta sentiberatze-materialaren jendaurreko aurkezpena antolatzeko, dinamizatzeko eta zabaltzeko lanetan endredatu diren eta lagundu diguten guztiei. Lantegi hori 2017ko maiatzean antolatu zuen Ignacio Ellacuria Fundazioak eta honako entitate hauek aritu ziren harekin elkarlanean: SSI taldea, Religiosas de M^a. Inmaculada Gizarte Zentroa, "Argitan" Emakumeentzako Aholku Etxea, "Sorgin eta Anitzak", "Babel" Munduko Emakumeak eta Deustuko Unibertsitatearen Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea. Eskerrik asko Josefina Roco Sanfilipori, lantegi honetatik sortutako erronka eta proposamenak bildu eta sistematizatzeko egindako lan onarengatik. Eta eskerrik asko parte hartu zuten 100 bat laguni ere, bai beren partaidetzarengatik, bai beren ekarpenengatik.

Mila esker Eusko Jaularitzaren Gizarte Politika eta Enplegu sailari, Bilboko Udalaren Berdintasun, Kooperazio, Elkarbizitza eta Jaien sailari, eta baita bbk Fundazioari, emakumeen artean elkartasuna eta elkarriketa sortarazten duen Babel dorrea espazioaren ekimenen parte bat finantziatzeagatik.

Hitzaurre

Zainketa-lanak eremu pribatura zokoratzen diren arte, generoaren eta klasearen menpe egoten jarraituko dute. Horregatik, funtsezkoa da zainketen borroka hori sukaldetik eta logelatik atera eta kaleetara eramatea.¹

Silvia Federiciren hitz horiek abiapuntutzat harturik, atsegin handiz aurkezten dizuet eskuartean duzuen koadernoak. Horixe baita zainketa-lanei eta (des)parekotasunari buruzko hamabost istorio hauen helburua: zainketen eta etxeko lanen auzia plazara ateratzea, auzi larri hori politizatzea, hitzaren zentzurik onenean.

Gure bizimoduaren oinarri ikusezinak dira zainketa-lanak, baina generoaren menpe egoten jarraitzen dute, eta feminizatu eta prekarizatu egiten dira, entzungor egiten zaie politika ekonomikoak diseinatzeko direnean, eta sistema ekonomikoa doitu eta berregokitu behar izaten denean ere, kasik ez dira aintzat hartu ere egiten, emakumeen autonomia, osasuna, zoriona eta justizia ahaztuz.

Zainketarik gabe ez dago bizitzarik, baina sistema patriarkalean politikak ikusgaitasunaren logikari jarraitzen dionez, bizitza zaintzeko ardura duten emakumezkoak eta bizitzaren materialtasuna bera ikusezin bihurtzen dira, eta haien lana prekarizatu egiten da, esklabotzazko lan-hobietara zokoratuz. Horixe gertatzen da etxeko lanekin ere; paradoxikoki, baina, *“munduak ez dauka gu gabe aurrera egiterik”*, *Territorio Doméstico* elkarteko kideek esaten duten bezala.

Gaur egun, Espainian, 429.663 etxeko langile daude segurtasun sozialean izena emanda, eta langile horien % 95 emakumezkoak dira. Gainera, sektoreko ezkutuko lanari buruzko kalkuluen arabera, 700.000 dira gaur egun inon izenik eman gabe etxeko lanetan diharduten langileak (% 40, gutxi gorabehera), eta gehienak, jakina, paperik gabe lan egiten duten emakumezkoak dira. Koaderno honetan, emakume horiek hartuko dute hitza, beren egoera SALATZEKO eta zenbait ESKAERA egiteko:

-Beren lana ikusgai bihurtzea, duintzea eta beren eskubideak aitortzea eskatzen dute. Orain arte egindako zainketa-lanengatik kapitalismo patriarkalak emakumeekin duen zorra desestaltzen dute istorio hauek; zor hori kitatzen ez den bitartean, *zainketen kate globalak* erremediorik gabe betiketuko dira. Hau da, zainketak etxe batetik bestera transferituko dira, eta transferentzia hori botere-harremanetan oinarrituko da: generoan, etnialan, klasean, jatorrian...

-Emakumezko migratzaileen errealitatea desitxuratu eta emakumezko horiek baliabiderik gabeko biktima soiltzat hartzen dituen estereotipoaz haragoko begirada eta aitortpena eskatzen dute. Kontakizun hauen egileen identitatea ez da, inola ere, gaur egun egiten dituzten etxeko lanetara mugatzen. Gehien-gehienek lan-esperientzia oparoa dute beren sorterrietan, bai eta prestakuntza kualifikatua ere. Diskurtso propioa duten emakumeak dira, inork beren ordeztu hitz egitea behar ez dutenak; beren borrokaren berri emango duten mikrofono eta hedabideak: horixe da behar

1. Silvia Federici, *Revolución en punto cero Trabajo doméstico, reproducción y luchas feministas*, Traficantes de sueños, Madrid, 2012

2. <http://territoriodomestico.net/>

dutena. Proiektu eta amets ugari dauzkaten emakumeak ere badira, eta dakitenaren berri eman nahi dute; gainera, beren proposamen eta errebindikazioak atzeraezinak dira: LANEren 189. hitzarmena berrestea; beste edozein langilek bezala, langabezia-asegurua jasotzeko eskubidea izatea; atzera egiteko neurriei uko egitea; atzeritarren legea aldatzea, kanpotik hona datozen emakumeek kontratu bat lortzeko hiru urte itxaron behar izan ez dezaten; familia berrelkartzeko eta lana eta familia bateratzeko kondizioak malguagoak izatea; indarkeria matxistari eta lantokietako sexu-jazarpenei aurre egitea, eta abar.

Baina kontakizun hauen egileak BEREN EGOERAREN BERRI EMATEN DUTEN EMAKUMEAK ere badira:

Kontzientziazio- eta ahalduentze-prozesuetan indar kolektiboak duen ahal ikaragarriaren berri ematen duten emakumeak, beren borroketatik eta ametsetatik abiatuak, han-hemengo beste emakume askori bidea irekitzen laguntzen dietenak. Emakume kementsuak, protagonistetako batek bere buruaz dioten bezala.

Koaderno honetan biltzen diren zainketa-lanei eta (des)parekotasunari buruzko hamahiru kontakizunek gizarte zibilarri interpelatu die, gu guztioi, bizitza zainketa-lanetan oinarritzen dela jabetu gaitezen eta, beraz, ekonomia oinarri horretatik birmolda dezagun. Egileek *ekonomia iraultzeko* erronka jotzen digute, pertsona guztiok *bizitza merezi duen bizitza* izan dezagun. Baliabide pedagogiko apartak ere badira, bertan lantzen diren auzi eta ematen diren giltzarri sozio-juridikoek antolaketa-prozesuak abiatzeko hainbat gako ematen baitizkie langileei.

Laburbilduz, koaderno hau ezinbestekoa da taldean gogoeta egiteko eta emakume migratzaileen duintasun- eta ahalduentze-istorioekin ikasten jarraitzeko; ez dezagun ahaztu: sistemak *besoak nahi zituen, baina pertsonak iritsi ziren, eta elkarrekin bizitza aldatuko dugu*.



Pepa Torres Pérez
Territorio Doméstico

SARRERA

Ellacuria Gizarte Fundazioak gizarte inklusibo baten alde lan egiten du; pertsona guztiek beren eskubideak berdintasunean izango dituzten gizarte baten alde eta pertsona guztiek guztion ongizatearen eraikuntzan parte hartzeko aukera izango duten gizarte baten alde.

Pertsona migratzaileen errealitatetik abiatuta, Ellacuria Fundazioak:

- Gizartearen parte-hartzeari, antolamenduari eta ahalduztzeari buruzko prozesu kolektiboari lagun egiten die.
- Kultura arteko eta erlijio arteko harremanak izateko eta elkartzeko guneak ahalbidetzen ditu, pertsonen eta taldeen arteko loturak sendotzeko eta giza-legezko kontzientzia amankomun bat sortzeko balio dutenak.
- Kultura artekoa eta inklusiboa den gizarte baten erronkei buruzko sentsibilizazioa egiten du eta horri buruzko trebakuntza ematen du.
- Bere lan-eskarmentua ikertzen eta sistematizatzen du, bere esku-hartzea hobetzeko eta eremu publikoan proposamenak eskaintzeko.
- Politika publiko inklusiboak eta unibertsalak babesten ditu, bai eta kultura-eta erlijio-aniztasunaren kudeaketa positiboa ere.

Ellacuria Fundazioa Jesusen Lagundiak, KBE Arrupe Elkartek eta Mariaren Lagundiak sustatzen dute. Espainiako Migratzaileentzako Jesuiten Zerbitzuaren kidea da.

2006an, gure fundazioa sortu zen, eta, aldi berean, Babelgo Dorrea izeneko topagunea abiatu zen. Topagune horretan, kultura aniztasunarekiko eta generoen arteko berdintasunarekiko sentsibilitatea duten pertsona talde bat —bertakoez eta migratzaileez osatua— elkartzen da larunbat arratsaldero, bizitza partekatze eta elkartzeko eta laguntasun harremanak sortzeko. Taldearen historian hainbat urrats eman dira eta hainbat erronka sortu dira, topagune horretan parte hartzen duten pertsonen beharrei erantzuteko.

Zer dela-eta etxeko lanetan diharduten emakume migratzaileak

Munduko emakume gehienek egiten duten lana, hau da, ugaltze-lana eta etxeko lana ez dira aitortzen... eta funtsezko gaia da. Ez baldin badago ugaltzerik, ez dago produkziarik... emakumeak gelditzen badira, guztia gelditzen da; etxeko lanak gelditzen badira, gainerako guztia gelditzen da.

(Silvia Federici)

Babelgo Dorrea taldearen funtsezko ezaugarri bat emakume migratzaile asko izatea da; zaintza-sare globalak ehuntzen dituzten emakumeak. Gehienek beren jatorrizko herrialdeetan dituzten senideei mantenua ematen jarraitzeko migratu dute. Hori lortzeko, zaintzen arloan eta etxeko lanetan lan egiteko prest daude. Sarri, lan-merkatuko hobi hori ez da pertsona horien lan-esperientziari dagokiona, baina guk gizarte gisa lan-munduan txertatzeko eskaintzen diegun aukera gutxietako bat da —berez aukera gutxi dituzte—. Hori dela eta, beren jatorrizko herrialdeetako senideen bizitza ez ezik, gure gizarteetako pertsonen bizitza ere mantentzen eta zaintzen dute. Gehie-

nek etxe-barneko langile gisa lan egiten dute, eta beste asko administrazio-irregular-tasun egoeran daude.

Babelgo Dorrea taldea elkartzeko eta harremanak izateko gune bat da, eta, bertan, etxean bezala sentitzeko aukera dago. Era berean, etengabe ematen dira pertsona migratzaileen eskubideen ezagutzari eta aldarrikapenari lotutako urratsak, eta, bereziki, etxeko lanetan diharduten emakume migratzaileen eskubideen ezagutzari eta aldarrikapenari lotutakoak. Hori berdinen arteko elkarrizketa ahalbidetzen duten dinamiken bidez egiten dugu. Bizi-esperientziatik abiatuta, zenbait gairi buruz hitz egiten eta hausnartzen dugu, hala nola iparraldearen eta hegoaldearen arteko desparekotasunei buruz, generoen arteko desparekotasunei buruz eta desparekotasun horiek jatorri-etnia-arraza eta klasearekin nahasten diren egoerei buruz.

Hainbat urtez bizitza, ametsak eta itxaropenak partekatzen aritu eta gero, errealitateari ireki diogu geure burua eta ezagutza sortzen ahalegintzen gara bai burua bai bihotza erabiliz. Emakume horien bidez eta haiek etxeko lanetan eta zaintza-lanetan Emakume-Migratzaile-Langile gisa bizi behar dituzten injustizia- eta desparekotasun-egoerak ezagutzearen ondorioz, kontzientzia hartzen joan gara ikuspegi feministak batetik ere migrazioen errealitatea aztertzearen garrantziari buruz. Urte hauetan, helburu eta borroka berdinetan dabiltzan beste zenbait erakunde eta pertsonarekin nahasten joan gara, eta, hori dela eta, guztiok elkar aberastu eta sendotu dugu. Hona hemen erakunde horiek: Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartea, Argitan Barakaldoko Emakumeentzako Aholku Etxea, Euskadiko Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea (CEAR-Euskadi), Círculo Solidario, Gurutze Gorria, Centro Social María Inmaculada, Basauriko Emakumeen Elkartea eta Zubietxe Elkartea Lan-bitartekotzako erakundeen sarearen baitan (soldata-taula), Work-Lan: Gizarte Ekonomiako Enpresak sustatzeko Elkartea, SSI taldea: Servicios Sociales Integrados kooperatiba, Alboan elkarteko genero-batzordea, Ayudamás Fundazioa, Rekalde erakusketa-aretoa, Deustuko Unibertsitateko Gizarte Hezkuntza, Biltzen, Emakumeok bidean sarea, Kafeminista sarea, Indautxuko Jesuitak ikastetxea, Munduko Medikuek, Centro de Humanización de la Salud de los Religiosos Camilos zentroa. Besteak beste.

Interdependentziei eta asimetriari buruz.

Ekonomia feministaren ekarpenik handienetako bat hau da bizitzan zehar zaintzak —izan zaintza intentsiboagoak, izan zaintza arinagoak— behar dituzten izaki interdependente (elkarrekiko eta naturarekiko) gisa begiratzen eta ulertzen elkarri. Giza genero garen aldetik ditugun zaintza-beharrei erantzuteko zailtasunak direla-eta, produkzio-ereduan eta gizarte-erreproduzioaren ereduan aldaketa erradikala proposatzen dute, eta lehen urratsa bizitza erdigunean jartzea da. Pertsonak eta naturak dugun erdiguneko balioa berreskuratu behar dugu; izan ere, aberastasunak pilatzeak erdigunetik mugitu ditu bi elementu horiek, pertsonen kaltetan eta haien sufrimendua eraginez, bai eta naturaren espoliazioa eraginez ere.

Ikuspegi global horrek tokian tokiko eragina badu gure zaintza-beharrei erantzuteko moduan. Hegoaldeko migrazioen feminizazioaren eta Iparraldeko biztanleriaren zahartzearen arteko loturak islatzen dituzte mundu-mailako interdependentzia eta asimetriak. Egoera horiek bazterkeria mota jakin batzuen ondorioz gertatzen dira, hala nola, generoan, jatorrian eta klase sozialean oinarritutako bazterkeria-moten ondorioz.

Euskal gizartearen zaintza-beharrak pertsonen beren etxebizitzetan ematen zaien arreta-zerbitzuen esternalizazioaren bidez joan dira konpontzen, neurri handi batean. Joera horrek gora egingo du; izan ere, 2050. urtean EAEko biztanleen % 39 adinekoa izango dela aurreikusten da*, eta adineko pertsonen % 83,4k bere etxebizitzan bizitzea lehenesten du beste aukeren aurrean.

Gizarte-segurantzaren Etxeko Langileen Erregimen Berezian 2015ean izandako alden datuen arabera, erregimen horretako alden % 41,13 (12.151) kanpoko herrialdeetan jatorria duten pertsonen egin zituzten, bereziki Latinoamerikako herrialdeetan jatorria dutenak. Gizarte-segurantzaren barneko langileen modalitateko datuen desagregaziorik ez dagoenez, eskaintza hori batez ere emakume migratzaileek betetzen dutela esan daiteke. Emakume migratzaile asko ez dira kontuan hartzen estatistiketan; izan ere, ezkutuko ekonomian jardutera behartuta daude. Egoera hori hainbat arrazoren ondorioz gertatzen da, hala nola ez dituztelako beren administrazio-egoera erregularizatzeko eta gizarte-sustraitzea eskatzeko baldintzak betetzen edo lanean diharduen etxeetan ez diotelako kontraturik egin nahi.

Ezkutuko ekonomiak eta gizarte-segurantzako altetan barneko edo kanpoko langileen datu desagregatuak ez egoteak gai horrekin zer gertatzen ari den ezkututzen laguntzen du. Nolanahi ere, barneko modalitatean diharduten etxeko langileen eta zaintza-langileen ekarpena oso garrantzitsua da eta izango da, baina desparekotasun eta zaugarritasun handiagoko egoera batean dihardute; izan ere, berez aitorpen txikia duen eta gainerako langileekin alderatuta lan-eskubideak murriztuak dauden lan-arlo batean dihardute.

Eraldatzeko ikusaraztea

Historiak kontatzeak helburu bat du. **Ignacio Ellacuria Gizarte Fundazioan** interesa dugu gure erakundearekin lotutako **etxeko lanetan eta zaintza-lanetan diharduten emakume migratzaileen eskubide-urraketen kasuak** aurkitzeko eta biltzeko —bereziki Babelgo Dorrea gunearekin lotutako emakumeen kasuak—. Horrekin guztiarekin aditzera eman nahi ditugu errealitate horiek —zeinak ez diren batere ezagunak—, tresna gisa honako hauetarako balio duen material bat lantzeko:

- Emakume horien ahotsa zabaltzea. Emakume horiek lan-munduan eta bizitzan izan dituzten esperientziei buruz hitz egiten digute, bai eta beren eskubideez ere.
- Beste emakume migratzaile batzuk beren esperientzia kontatzera animatzea. Halaber, emakume horiek beren eskubideei eta betebeharrari buruzko informazioa izatera eta aholkua non eskatu dezaketen jakitera animatzea.
- Gizartea zaintzaren balio sozialaz eta oro har etxeko lanetan eta zaintza-lanetan diharduten langileen eskubide-urraketei buruz sentsibilizatzea; eta bereziki babesgabetasun-egoeran dauden emakumezko langile-migratzaileen eskubide-urraketei buruz sentsibilizatzea.
- Funtsezko agenteen artean elkarriketa sorraraztea, aliantzak sortzea-sendotzea eta errealitate hori eraldatzeko zenbait proposamen mobilizatzaile egitea.

Ikusi EIN. Serie nagusiak 1971tik hasita. Biztanleria-proiekzioak 2014-2029. Biztanleria-proiekzioak 2014-2064. Errolda.

EUSKO JAURLARITZA. "Euskadin 55 urte edo gehiago dituzten pertsonen bizi-baldintzei buruzko ikerketa". ECVPM-EUSKADI 2014 / 2015 eta EUSTAT. 2050 lehen egoera demografikoa.

Gogoetak eragiten dizkiguten historiak

Historia bakoitzaren tituluan, kide bakoitzak bere burua ezizen batez aurkezten du. Kontakizunak lehen pertsona kontakizun dizkigute, eta horrek pertsona horien azalean jartzen laguntzen digu. Jatorrizko herrialdeetatik amets, oroitzapenez eta nahiez beteriko zorrotz batekin etortzen direla gogorarazten digute. Itxaropenaren eta ausardiaren bidez ekin zioten migrazio-prozesuei, iparraldearen eta hegoaldearen arteko desparekotasunei eta, langile horien kasuan, haiekin gurutzatzen diren generoarekin, jatorriaren eta klasearen auziei erantzun bat emateko. Emakume horiek garapen pertsonalaren, familia-garapenaren, eskualdeko garapenaren eta transnazionalaren motorra dira, baina zein da beren helburuak lortzeko amets eta estrategien kostua? Zer dugu egoera horri buruz esateko gizarte gisa? Haien bizi-proiektuen bidez, baldintza duinetan bizitzeko nahi amankomunetan identifika dezakegu geure burua.

Lehen atalean hamar esperientzia daude jasota. Esperientzia horiek gogorarazten ditugute pertsona guztiek behar ditugula zaintzak eta gizarte "modernoetan" auzi horri ematen ari gatzazkion erantzuna ez dela batere justua. Genero-desparekotasunen transmisio bat dago hango eta hemengo emakumeen artean; izan ere; zaintzen auzia ez da politika publikoetan behar beste berrikusten eta aintzat hartzen. Aurrekoari imajinario kolektibo bat gehitzen zaio: zaintza, batez ere emakumeei dagokiena, familiako gai pribatutzat jo, eta familiek beren zaintza-beharretarako (zaintza fisikorako lanak, garbiketa pertsonala, botiken hornidura eta jarraipena, nutrizioa, giza laguntza, laguntza espiritual, laguntza psikologikoa, sukaldia, etxeko garbiketak eta abar) kontratatzen dituzten emakumeak "denetarako neskatzat" dituen imajinarioa.


Era berean, etxeko langile migratzaileek hainbat aurreiritziri aurre egin behar diete: generoarekin lotutako aurreiritziei ez ezik, bere jatorri, etnia, arraza edo askotariko usteei lotutako aurreiritziei ere aurre egin behar diete. Horri guztiari gehitu behar zaio emakume horien egoera administratiboak eragiten duen duten babesgabatasun handiagoa, bereziki administrazio-irregularitasun egoeran dauden emakumeena; izan ere, haien negoziatzeko gaitasuna are mugatuagoa dago paperak lortzeko edo berritzeko immigrazio-arloko eskakizunak direla-eta. Desparekotasun egoera horrek hainbat egoera kaltegarri dakartza, hala nola tratatu txarrak, gehiegikeriak eta beste biolentzia mota batzuk.

Hurrengo atal batean, emakumeek kontakizun dizkiguten historietan gure gizartearen ikuspegi positiboago bat ikusten da. Guk praktika ontzat jotzen ditugun lan-esperientziak eta esperientzia humanoak dira, eta garrantzia berezia dute; izan ere, etxeko langileen eskubideen errespetuzko etorkizun bat igartzen dutela uste dugu. Hala ere, badakigu genero-jatorri-klasearen desparekotasunaren transmisioari buruzko eta zaintzei buruzko eztabaida askoz ere zabalagoa dela.

Amaitzeko, bertako eta atzeritik etorritako etxeko-langile eta zaintza-langileen arteko elkarriketatik sortutako zenbait hausnarketa mahaigaineratzen ditugu. Hausnarketa horiek gai hauei buruzkoak dira: 1) euskal gizartearen zaintza-beharrari buruzkoa, 2) etxeko-langileen eta zaintza-langileen lan-baldintzak hobetzeko proposamenak eta aliantzak sortzeko beharrari buruzkoa, 3) langile migratzaileen babesgabatasun-egoera bereziari buruzkoa eta 4) emakume horien estimu, afekzio eta etorkizuneko proiektioei buruzko ikuspegi zabal bat izateko beharrari buruzkoa.




Eskubide urratze historiak



Andy

Ez gara esklaboak



Andy* naiz, Nikaraguakoa. Banandua naiz eta lau seme-alaba ditut, txikienak 18 urte ditu. Lehen Hezkuntzako irakaslea naiz eta psikologian prestakuntza daukat.

2011n iritsi nintzen Euskal Herrira, nire seme-alabentzako bizitza hobea bermatzeko xedearekin, unibertsitatea amaitzeko aukera izan dezaten. Laguntza izan nuen bidaia egiteko eta bizileku-txartela eskuratu ahal izan nuen. Nire lan-profilerako, hemen geriatría ikastaro bat egin nuen.

Nire lehenbiziko lana hilabeteko ordezkapen bat izan zen. Zaintzen nuen pertsona nagusiak jotzen ninduen! Baina isildu eta ordezkatzeko nuen neska oporretatik itzuli arte itxaron nuen. Ondoren, gizon adindun bat zaindu nuen lau urtez. Edukazioz hitz egin eta janari asko ematen zidaten. Hala ere, ez zidaten gehiegi ordaintzen, eta familiaz aldatu behar izan nuen.

Hurrengo lanean, zaintzen nituen pertsonak oso maitekorrak ziren nirekin, baina haien semea matxista, agintzailea eta despotikoa zen. Behin eta berriro esaten zidan: "Ipurdiak garbitzea esklaboen lana da". Umiliatua sentitu izan naiz behin baino gehiagotan. Behin, baimena eskatu nion paper batzuk konpontzera joateko, eta ukatu egin zidan. Oso gaizki sentitzen nintzen tratatu txar horiengatik. Egoera jasanezina zenez, alde egitea erabaki nuen. Zegokidana ordaindu zidan, mehatxatu egin nuelako; izan ere, bere aburuz, ez zegokidan ezer. Ez nekien norengana jo nire eskubideen gaineko aholkularitza jasotzeko.

Egungo lanean ez didate uzten nire gauza guztiak nirekin izaten, eta logela bat alokatu behar izan dut. Haiekin erroldatuta nago. Larunbateko 09:30etik igandeko 18:30era atsedean hartzen dut. Tratu ona jasotzen dut; ikusten dute beren ama ongi zainduta dagoela, baina emakumearen osasuna okerrera doa eta asko kostatzen zait bera mugitzea.

Nire ametsa da zaintza-lan mota berean kanpoko-langile gisa jardutea eta beste langileek dituzten eskubide berak izatea: langabezia-prestaziorako eskubidea, erretiro baldintzak hobetzea, etab. Horregatik, etxeko laguntzako kooperatiba bat sortzeko proiektu batean parte hartzerantz animatu nintzen.

Hemen jarraitu nahi dut, Euskal Herrian. Irakasle lan egin nahi nuke, baina euskaraz ez badakizu, oso zaila da.

Halaber, esan nahi nuke, nik ez ditudala sexu-abusuak pairatu, baina lankide batzuk jasaten dituzte, eta isilik geratzen dira lana galtzeko beldurra dutelako. Batzuek ez dute paperik, eta hortaz, ez dute isilik geratu beste biderik.

* Horrela esaten didate maite eta errespetatzen nautenek. Horrela trata nazaten nahi dut.

Pentsazen...

Zure ustez, zein eskubide urratzen dira, eta zergatik?



Eskubide-urraketei buruzko gako sozio-juridikoak*:

Oso garrantzitsua da gure eskubideak zein diren jakitea, hori baita eskubideak erreklamatzeko lehen pausoa. Esaten den bezala, informazioa boterea da.

Gainera, jakin behar dugu nora jo informazioa jasotzeko eta salaketa jartzeko, behar izanez gero. Bide horretan, berez hain gogorra dena, bakarrik ez sentitzea da kontua.

Lan askotan, emakume langilea umiliatu egiten dute edo tratu txarra ematen zaio, dela arraza, klase edo larruazalaren kolorearengatik, dela erlijioarengatik, aurreiritziengatik... Tratu txarrak ahozkoak, fisikoak eta psikologikoak izan daitezke, besteak beste, eta ez ditugu inolaz ere onartu behar; hitz egin behar da, lankideekin partekatu eta laguntasuna bilatu.

Pertsonen arteko edozein harremanetan, tratu onak, edukazioak eta errespetuak berezkoa izan beharko luke, baita lan-esparruan ere, eta ez dugu eskubide-urraketarik onartu behar "ondo tratatzearen" ordainetan.

* Erreferentzia arauemaileak :

- Real Decreto 1620/2011, de 14 de noviembre, por el que se regula la relación laboral de carácter especial del servicio del hogar familiar.
- Real Decreto-ley 29/2012, de 28 de diciembre, de mejora de gestión y protección social en el Sistema Especial para Empleados de Hogar y otras medidas de carácter económico y social (BOE de 31 de diciembre de 2012)
- Ley 27/2011, de 1 de agosto, por la que el Régimen Especial de la Seguridad Social de las Empleadas de Hogar queda integrado en el Régimen General de la Seguridad Social. Mediante el establecimiento de un Sistema Especial para Empleados Hogar.

RESURRECCIÓN

Egiten dugun lana defendatzea



Resurrección* naiz, Estelíkoa (Nikaragua). Bi seme-alaba ditut, eta ez nago ezkontuta. Basogintzako ingeniaria eta kontabilitate publikoko teknikaria naiz. Nikaraguan komunitate-garapeneko GKE batean lan egin nuen kaleko hurrekin, auzoko agente gisa. Horrekin bizi nintzen, nire alaba unibertsitatean hasi zen arte. Une hartan, Espainiara etortzea erabaki nuen, haren ikasketen gastuei aurre egiteko.

Ahizpa AEBetan bizi da, eta hark lagundu zidan 2010ean bidaia egiteko. Hala ere, Parisen 8 egunez atxiki ninduten, eta Nikaraguara bidali ninduten. Bigarren aldian, 2011n, Espainiara iristea lortu nuen. Lehengusuak nituen Donostian, eta logela lortzen lagundu zidaten. Cáritasek janariarekin lagundu zidan. Parrokoak lan baterako gomendatu ninduen, baina andreak ez ninduen hartu, "oso beltza" nintzelako. Oso gaizki sentitu nintzen. Beste andre batengana eraman ninduen, eta hark oso ondo hartu ninduen. Hil arte zaindu nuen. Nire logela eta osasun-txartela nituen.

Bilbora etorri nintzen, eta barneko etxeko langile gisa lortu nuen lana lagun baten bitartez. Ez nuen paperik, 800 € baino ez zidaten ordaintzen hilabeteen, eta ez nuen ez kontraturik ez aparteko pagarik. Oporrak bakarrik ordaintzen zizkidan eta bi ordu baino ez nituen libre egunero. Asteburuan, larunbateko 11:00etatik igandeko 21:00etara arte baino ez nuen libre. Lan esplotatzailea zen, eta exigentzia handikoa. 07:30ean lanean egon behar nuen dagoeneko 17:00ak arte, eta gero 19:00etatik 22:00etara arte: 12 ordu eta erdi egunero! Bost pertsona zaintzen nituen: hiru adineko eta bi haur. Etxe osoa garbitzen nuen. 4 solairuko etxea zen, izugarri handia. Plantxatu egin behar nuen egunero, zapatak garbitu mendira joaten zirenean, janaria prestatzen nuen, haurrak zaintzen nituen, baita hurren au-paira ere, han bizi baitzen hurrek alemana ikas zezaten.

Nire nagusiek metalaren industrian lan egiten zuten; etxe bat zuten Marbellan, beste bat Pirinioetan eta beste bat Bilbon. Paperak egin ahal izateko unea gerturatzen ari zitzaidala eta, andreari esan nion kontratua behar nuela paperak aurkeztu ahal izateko. Esan zidan gizarte-segurantzak nik ordaindu behar nuela. Onartu egin nuen, ez nuelako beste aukerarik. 2015eko irailean, AIZa lortu nuen. Lan hori utzi nuen, esplotatu egiten nindutelako, eta ez zidaten onartu Gabonetako aparteko paga ordaintzeko akordioa. 15 egun itxaroteko eta borondatezko baja sinatzeko eskatu zidaten. Bestela paperik gabe geldituko nintzela esan zidaten.

Hortik beste lan bat lortu dut. Kontratua dut, gizarte-segurantzak alta emanda nago, bi pagak ditut, soldata moderatua, eta errolatuta nago. Egunero bi orduz hartzen dut atsedena, eta asteburuan larunbateko 15:00etatik igandeko 21:00ak arte, orduan sartzen bainaiz berriro. Zaintzen dudana emakumeak Alzheimerra du, eta izaera zaila, baina haren alabak, nire nagusiak, pertsona gisa tratatzen nau, eta babesa ematen dit haren ama haserretzen denean. Asteburuetan beste etxe batean egiten dut lan, 5 urteren ondoren nire seme-alabak ikusi nahi ditudalako, eta dirua behar dut bidaia horretarako.

Amets bat du etorkizunerako. Alaba farmazia-ikasketetako azken urtean, dago. Nikaraguako etxea erakitzeko amaitu nahi dut eta han farmazia bat jarri, biok elkarri laguntzeko. Gaineratu nahiko nuke Ella-curían hemen ez dudana familiaren babesa sentitu dudala. Ahal izango banu, zuzenbidea ikasiko nuke, etxeko langileak defendatzeko eta ni bezala gaizki tratatu ez ditzaten. Emakumeon harrotasuna eta egiten dugun lan zintzoa defendatzen ikusten dut neure burua. Pertsona gisa tratatu behar gaituzte.

* "Resurrección" Nikaraguako lore bat da, lurretik jaio eta berpizten dena, ureztatu gabe.

Pentsazen...

Zure ustez, zein eskubide urratzen dira, eta zergatik?

Eskubide-urraketei buruzko gako sozio-juridikoak*:

Lan batean gustura ez bagaude, edozein unetan utz dezakegu. Ezin gaituzte lan batean ego-tera behartu bertan jarraitu nahi ez badugu.

Lana utzi nahi badugu, komeni da astebete lehenago jakinaraztea enplegatzaileari, eta, hala, likidazioa edo kitapena jasotzeko eskubidea izango dugu: azken hilabeteko soldataren parte eta aparteko ordainsarien eta oporren zati proportzionala.

Enplegatzaileak ere edozein unetan hautsi dezake kontratua. Kasu horretan, likidazioa eta, gainera, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea daukagu.

Kontratua hautsi dezake atzera-egitearen bidez (idatziz jakinarazita 7 edo 20 eguneko aurrerapenarekin, eta kalte-ordaina emanez: lan egindako urte bakoitzeko, 12 soldata-egun) edo, bestela, kaleratzearen bidez. Kaleratzea bada, kalte-ordaina 20 soldata-egun dira lan egindako urte bakoitzeko.

Kaleratzen bagaituzte, kontuan hartu behar dugu erreklamaziorako epea; izan ere, jakinarazten digutenetik 20 egun baino ez ditugu horretarako.

Egoera irregularrean egoteak (paperik gabe) EZ du eragozpena izan behar gure eskubideak erreklamatzeko edota gehiegikeriak salatzeke. Ez gaitezen kikildu lege-oinarririk gabeko mehatxuak egiten badizkigute, eta bila dezagun beti laguntasuna eta egiazko informazioa.

* Erreferentzia arauemaileak :

- Real Decreto 1620/2011, de 14 de noviembre, por el que se regula la relación laboral de carácter especial del servicio del hogar familiar.
- Real Decreto-ley 29/2012, de 28 de diciembre, de mejora de gestión y protección social en el Sistema Especial para Empleados de Hogar y otras medidas de carácter económico y social (BOE de 31 de diciembre de 2012)
- Ley 27/2011, de 1 de agosto, por la que el Régimen Especial de la Seguridad Social de las Empleadas de Hogar queda integrado en el Régimen General de la Seguridad Social. Mediante el establecimiento de un Sistema Especial para Empleados Hogar.

ESPERANZA

Lan esplotazioa desagerraraztea



Esperanza* naiz, Nikaraguakoa. 45 urte ditut. Nire herrialdean soziologia ikasketak egin nituen eta kontabilitate laguntzaile karrera. Han 10 urtez lan egin nuen Hezkuntza Ministerioan eta 14 urtez Somotoko Udalean, Administrazio sailean. Alaba bat eta seme bat ditut, eta han bizi dira. Nire eta nire amaren mende daude.

2013an migratzea erabaki nuen nire alabari ingeniarietza ikasketa profesionaletan lagundu ahal izateko. Hiriburuan logela bat alokatu behar zuen unibertsitatara joan ahal izateko.

Herrialde honetara iritsi nintzenetik etxeko langilea eta zaintzailea naiz. Ez daukat paperik eta urtebete falta zait horiek izapidetu ahal izateko. Bi urte daramatzat barneko langile gisa familia batentzat lanean, garbiketa lanak egiten ditut eta adineko pertsona bat zaintzen dut. Barneko langile gisa egiten dut lan, gaueko 21:00etatik, hurrengo eguneko 15:00ak arte. Ez daukat niretzako logelarik. Zaintzen dudak emakumearen logelan egiten dut lo, eta ez dut ongi atseden hartzen. Askotan gauetan garbitu behar dut emakumea, eta batzuetan esnatu eta hizketan hasten da...

Elkarrizketa egin zidatenean esan zidaten 1000 euro ordainduko zizkidatela, aparteko ordainsariak barne, eta lana onartu nuen. Ez nekien ezer nire eskubideei buruz, baina orain gauza batzuk dakizkit eta ikusten dut 18 orduko lanaldiak egiten ditudala, eta soldata hori ez da nahikoa, ezta pentsatu ere!

Gero eta nekatuago nago. Zaintzen dudak emakumeak pisu handia dauka eta garabi bat behar nuke, baina familiak ez du erosi nahi. Atseden-orduei dagokienez, 6 ordu libre besterik ez ditut egunean astelehenetik igandera, arratsaldeko 15:00etatik gaueko 21:00ak arte. Hau da, ez dut egun edo gau bat ere osorik atseden hartzen! Eta hori esplotazio oso gogorra da.

Familia horren eskutik jasotzen dudak tratua oso urruna da, giroa oso hotza da. Emakumearen alabak nire lana zalantzan jartzen du; batzuetan galdetzen dit: "Zer egiten duzu altxatu ondorengo hiru orduetan?" Amarentzat bakarrik erosten duten janaria kontrolatzen didate. Nik nirea erosi behar dut, eta janaria bananduta egin behar dut; alde batetik berea, eta bestetik, nirea.

Lan baldintzak hobetu nahi izan ditut, baina haiengandik jasotzen dudak erantzuna da pertsona askok onartuko luketela nire lana. Eta horrek umiliatuta sentiarazi izan nau, ez bainaute baloratzen. Nire enplegatzailerik badakite kontratua behar dudala paperak lortzeko eta horregatik jarraitzen dudala haietzako lanean. Beste lan hobe bat lortuko banu, onartuko nuke. Egoerak kalte egiten dio nire osasunari.

Nire asmoa da Nikaraguara itzultzea da nire seme-alabek beren ikasketa profesionalak amaitzen dituztenean eta dirua aurrezten dudanean, han nire erretirora gehitu ahal izateko. Oraingo, badakit, hemen, paperak izanda ere, nire lan egoera ez dela hobetuko lan mota berarekin jarraitzen badut. Paperak ditudanean, adinekoak zaintzen jarraitu nahi nuke, baina baldintza hobeetan.

* Esperanza da motibatzen nauena, mantentzen nauena, jakitea egunen batean aukerak iritsiko direla.

Pentsazen...

Zure ustez, zein eskubide urratzen dira, eta zergatik?

Eskubide-urraketei buruzko gako sozio-juridikoak*:

Migratu duten emakume langile askok, egoitza- eta lan-baimena eskuratu beharrak bultzatuta, indarrean dagoen legea betetzen ez den lanetan jarraitzen dute, eta etengabe urratzen dira haien eskubideak.

Askotan, kontratua egingo dietela agintzen diete, eta etorkizunean beren egoera administratiboa erregularizatuko den esperantzarekin, urteetan baldintza gogorrak jasaten dituzte, eta, azkenean, kontraturik egin gabe, kaleratu egiten dituzte.


Ez fidatu kontratua egingo digula agindu, eta gero egunez egun etengabe eskubide funtsezkoenak errespetatzen ez dituenarekin.

Ez dezagun onartezinezko egoerarik jasan; hobe da beste lan bat bilatzea, non pertsona eta langile modura errespetatuko gaituzten, beste lankide batzuen laguntza eskatzea eta halakoak egiten dituzten enplegatuak salatzea.

Egoera irregularrean egoteak (paperik gabe) EZ du eragozpena izan behar gure eskubideak erreklamatzeko edota gehiegikeriak salatzeke. Ez gaitezen kikildu lege-oinarririk gabeko mehatxuak egiten badizkigute, eta bila dezagun beti laguntasuna eta egiazko informazioa.

* Erreferentzia arauemaileak :

- Real Decreto 1620/2011, de 14 de noviembre, por el que se regula la relación laboral de carácter especial del servicio del hogar familiar.
- Real Decreto-ley 29/2012, de 28 de diciembre, de mejora de gestión y protección social en el Sistema Especial para Empleados de Hogar y otras medidas de carácter económico y social (BOE de 31 de diciembre de 2012)
- Ley 27/2011, de 1 de agosto, por la que el Régimen Especial de la Seguridad Social de las Empleadas de Hogar queda integrado en el Régimen General de la Seguridad Social. Mediante el establecimiento de un Sistema Especial para Empleados Hogar.



VICTORIA

Laneko jazarpenari aurre egitea

Victoria* naiz, Santa Cruzekoa (Bolivia); ia 50 urte ditut, eta 5 seme-alaba. Ez nago ezkondua. 3. DBHra arte ikasi nuen. Nire herrian, gainerakoen arropak garbitzen nituen, eta bataioetarako, ezkontzetarako eta halakoetarako oroigarriak egiten nituen. Logela batean bizi nintzen 5 seme-alabekin. Nire seme-alaben bizi-maila hobetzarren etorri nintzen 2005ean. Ahizpak lagundu zidan, bera urtebete lehenago etorri baitzen. Nazionalitatea dut.

Ezagun batek Bilbora ekarri ninduen, eta barneko etxeko langile gisa lana aurkitu nuen, adineko pertsona bat zaintzen. Igandean baino ez nuen atsedena hartzen, 14 orduz. 600 € ordaintzen zidaten. 6 hilabete behar izan zuten ni erroldatzeko. Urte eta erdira, oporretara joan nintzen hilabete batez, eta beste neska batek ordezkatu ninduen. Gutxiago ordaintzen zioten, eta lanik gabe gelditu nintzen. Ez nuen ez paperik ez kontraturik. Ez nekien likidazio baterako eskubidea nuenik, ezta egunero bi orduko atsedena izateko ere.

Beste lan bat aurkitu nuen barneko etxeko langile gisa, bi adineko emakume zaintzen. Batek alzheimerra zuen, eta bestea, sartu nintzenean, burua ondo zuen. Ez nuen ez paperik ez kontraturik, baina erroldatu egin ninduten. 900 € ordaintzen zizkidaten. Etxeko lan eta enkargu guztiak egiten nituen; dena egiten nion alzheimerra zuen emakumeari, 90 kiloko pisua zuen, eta eutsi egin behar nion edozer gauza egiteko. Ez nuen denbora librerik; igandean 12 ordu, besterik ez.

Oso ondo egiten nuen lan; emakumeen erizainak ere zoriondu egin ninduen, oso ongi zainduta zeudelako. 2014an, soldata igotzeko eskatu nuen, baita eguneroko bi ordu libreak ere, emakumeen egoera gero eta okerragoa baitzen. 1400 € ordaintzen zidaten. Asteburu bat ematen zidaten 15 egunean behin; larunbatean irteten nintzen 15:30ean, eta igandean sartzen nintzen 22:00etan, eta paga osoak ordaintzen hasi zitzaizkidan.

Handik hiru urtera, bi seme-alaba ekarri nituen errotze familiarraren bitartez. Alabetako batek lagundu egin zidan eta bere etxean hartu zituen. Amaren etxean, ni bizi nintzen etxean, erroldatu zituen. Ez zien ezer esan gainerako ahizpei, haien arteko harremana txarra baitzen. Hor hasi zen arazoa. Esaten zidaten beren amaren diruarekin ematen niela jaten nire seme-alabei, haien arropak lanean garbitzen nituela. Horren handiak ziren presioa eta erasoak, ezen depresioak jo baininduen. Psikologoarenera joan nintzen, eta baja eman zidan. Alta eman zidatenean eta lanera itzuli behar nuenean, informazioa bildu eta lana uztea erabaki nuen osasunagatik, nahiz eta 8 urtetik gorako antzinatasuna izan.

Ordezkapenak egiten eta lana bilatzen ari naiz. Indarrak hartu nahi ditut nire alabari laguntzeko, ikasten ari baita. Ez dut nire herrialdera itzultzeko asmorik. Hemen Gizarte Segurantzza dut, eta nire herrialdean ez dut ezer. Etxeko langile edo garbitzaile gisa jarraituko dut lanean.

* Ezizen hau aukeratu dut, ez dudalako amore eman, eta aurrera jarraituko dut.

Pentsazen...

Zure ustez, zein eskubide urratzen dira, eta zergatik?

Eskubide-urraketei buruzko gako sozio-juridikoak*:

Migratu duten emakume langile askok, egoitza- eta lan-baimena eskuratu beharrak bultzatuta, indarrean dagoen legea betetzen ez den lanetan jarraitzen dute, eta etengabe urratzen dira haien eskubideak.

Askotan, kontratua egingo dietela agintzen diete, eta etorkizunean beren egoera administratiboa erregularizatuko den esperantzarekin, urteetan baldintza gogorrak jasaten dituzte, eta, azkenean, kontraturik egin gabe, kaleratu egiten dituzte.

Ez fidatu kontratua egingo digula agindu, eta gero egunez egun etengabe eskubide funtsezkoenak errespetatzen ez dituenarekin.

Ez dezagun onartezinezko egoerarik jasan; hobe da beste lan bat bilatzea, non pertsona eta langile modura errespetatuko gaituzten, beste lankide batzuen laguntza eskatzea eta halakoak egiten dituzten enplegatzailleak salatzea.

Egoera irregularrean egoteak (paperik gabe) EZ du eragozpena izan behar gure eskubideak erreklamatzeko edota gehiegikeriak salatzeko. Ez gaitzezen kikildu lege-oinarririk gabeko mehatxuak egiten badizkigute, eta bila dezagun beti laguntasuna eta egiazko informazioa.

* Erreferentzia arauemaileak :

- Real Decreto 1620/2011, de 14 de noviembre, por el que se regula la relación laboral de carácter especial del servicio del hogar familiar.
- Real Decreto-ley 29/2012, de 28 de diciembre, de mejora de gestión y protección social en el Sistema Especial para Empleados de Hogar y otras medidas de carácter económico y social (BOE de 31 de diciembre de 2012)
- Ley 27/2011, de 1 de agosto, por la que el Régimen Especial de la Seguridad Social de las Empleadas de Hogar queda integrado en el Régimen General de la Seguridad Social. Mediante el establecimiento de un Sistema Especial para Empleados Hogar.

DIGNA

Ez erasotua, ez gaizki tratatua



Digna* naiz, Ekuadorrekoa. Nire herrialdean 4 seme-alaba eta bilobak ditut. Haietako batek gaixotasun larri bat dauka eta tratamendua oso garestia da. Ekuadorren hainbat lanetan aritu nintzen: zerbitzari, jostun, brodatzaile, sukaldari... Nire herrialdean bigarren hezkuntzako ikasketak ditut. Espainiara orain dela 17 urte etorri nintzen, nire seme-alabei laguntza ekonomikoa emateko. Madrilen lan egin nuen zenbait urtez, eta gero, Bilbora etorri nintzen. Nazionalitate bikoitza daukat. Ahizparekin eta bere familiarekin bizi naiz eta barneko etxeko langile ari naiz, alzheimerra duen emakume bat zaintzen.

Lanean, esperientzia ezberdinak izan ditut; batzuk oso txarrak; adibidez, emakume batek soberakinak jatera behartzen ninduen eta mehatxatu egiten ninduen, bere semeari ez kontatzeko. Beste lan batean, zaintzen nuen emakumea hil egin zen, eta semeak bere aita zaintzeko eskatu zidan. Orduategi osoa egiteko, beste lan osagarri batzuk bilatu zizkidaten beste etxe batean. Egun batean, goizero bezala, zaintzen nuen gizonak logelatik deitu ninduen, konpresio galtzerdiak jartzeko. Sartu nintzenean, gizona ate atzean ezkutatuta zegoen, ohe gainera bultzatu ninduen eta ukitzen hasi zitzaidan. Ahal izan nuen bezala, ihes egin eta lana utzi nuen. Ez nion semeari kontatu, ez zidan-eta sinetsiko.

Beste lan batean, emakumeak oso ongi tratatzen ninduen, baina gastroenteritis handi bat izan nuen, eta lana utzi behar izan nuen. Egungo lanean sentitzen dut ez nautela errespetuz tratatzen. Nire nagusiak zazpi anai-arreba dira eta batzuk hotzak eta despotak dira. Alabetako batek esaten dit ez dudala ezer ongi egiten. Honako hauek dira nire eginbeharrak: etxebizitza garbitzea, harrikoa egitea, bazkaria egitea... eta alzheimerra duen eta gurgil-aulkian dagoen emakume bati janzen, garbitzen, jaten eta mugitzen laguntzea, zaintza soziosanitarioak ematea...

Nire ahizpa ordezkatzeko sartu nintzen, etxebizitza garbitzen zegoela erori egin zelako eta sendatu arte utzi behar izan duelako. Igandetik larunbatera lan egiten dut eta egunero ordubeteko atsedena hartzen dut. Jaiegunetan lan egiteko eskatu dut, lurrikararen ondorioz nire familia etxerik gabe geratu zelako eta diru gehiago bidali behar didealako. 40 € ordaintzen didate.

Soldatari dagokionez, gutxieneko legalak errespetatzen dituzte, gizarte segurantzaren ordaintzen dute, eta hilero egiten didate ordainketa, dagokion unean. Guztira, 1.250 € dira, aparteko ordainsariak barne, baina ez dakit oporrei dagokien zatia ordainduko didaten. Gela pribatu bat daukat atsedena hartzeko, eta bertara joaten naiz emakumearen seme-alabak bisitan datozenean, une horretan ez dutelako ni bertan egoterik nahi. Are gehiago, seme-alabak etortzen direnean, ez naute agurtzen ere.

Ez dute sekula nire lana aintzatetsi, eta uste dut merezi dudala; izan ere, emakumeak zauriak zituen iritsi nintzenean, eta orain ez; odoleko azukre maila altua zuen, eta orain ez; eta beti dago garbi eta orraztuta. Ez didate uzten laguntza-garabia erabiltzen emakumea mugitzeko, oso gutxitan bakarrik erabili izan dut. Pisu handia da niretzat, emakumeak ez baitu mugimenduetan laguntzen, eta horrek nire osasunari eragiten dio. Ez naiz Ekuadorrera itzuliko, bisitan ez bada; Madrilerara bueltatzea pentsatzen ari naiz. Ez daukat erretirorako planik, baina argi dago horri buruz pentsatu behar dudala.

* Digna (duina) hitzak definitzen du ondoen bidegabekeria asko bizi arren aurrera begiratzen eta aurrera egiten dakien emakume baten izaera.

Pentsazen...

Zure ustez, zein eskubide urratzen dira, eta zergatik?

Eskubide-urraketei buruzko gako sozio-juridikoak*:

Etxeko langile askok beren lanetan jazarpena edo eraso sexual motaren bat jasaten dute. Oso garrantzitsua da halakoak ikusaraztea, aholku bila jotzea eta ez isiltzea. Izan ere, askotan, beldurragatik edo lotsagatik, ez da ezer esaten.

Zorionez, gero eta emakume langile gehiago animatzen dira halakoak salatzea. Nahiz eta horrelako ekintzak egiten dituen oso kontziente ez izan, ez dugu kalte eta min egiten digun egoerarik edota egoera larri eta deserosorik jasan behar.

Lan askotan, emakume langilea umiliatu egiten dute edo tratu txarra ematen zaio, dela arraza, klase edo larruazalaren kolorearengatik, dela erlijioarengatik, aurreiritziengatik... Tratu txarrak ahozkoak, fisikoak eta psikologikoak izan daitezke, besteak beste, eta ez ditugu inolaz ere onartu behar, hitz egin behar da, lankideekin partekatu eta laguntasuna bilatu.

Pertsonen arteko edozein harremanetan, tratu onak, edukazioak eta errespetuak berezkoa izan beharko luke, baita lan-esparruan ere, eta ez dugu eskubide-urraketarik onartu behar "ondo tratatzearen" ordainetan.

Legez kontrakoa da beste pertsona batzuei edozein zerbitzu ematera behartzea, familiakoak direla, lagunak direla...

Etxeko langile guztiek dute astean 36 ordu jarraian deskantsatzeko eskubidea (egun eta erdi jarraian). Normalean, baina ez derrigor, aste-bukaeran.

* Erreferentzia arauemaileak :


- Real Decreto 1620/2011, de 14 de noviembre, por el que se regula la relación laboral de carácter especial del servicio del hogar familiar.

- Real Decreto-ley 29/2012, de 28 de diciembre, de mejora de gestión y protección social en el Sistema Especial para Empleados de Hogar y otras medidas de carácter económico y social (BOE de 31 de diciembre de 2012)

- Ley 27/2011, de 1 de agosto, por la que el Régimen Especial de la Seguridad Social de las Empleadas de Hogar queda integrado en el Régimen General de la Seguridad Social. Mediante el establecimiento de un Sistema Especial para Empleados Hogar.

HURRIA

Erasorik, esplotaziorik eta diskriminaziorik ez



Hurria* naiz, Marokokoa; 40 urte ditut, ezkongabea naiz eta ez daukat seme-alabarik. 20 urte baino gehiago daramat Espainian bizitzen. Batxilergoa ikasi nuen nire herrialdean, eta hona etorri nintzen Granadako Unibertsitatean fisioterapia edo medikuntza ikasteko. Ikasle-txartela nuen. Hasieran ahizparekin bizi nintzen, baina gero handik irten eta etxe batean lanean hasi nintzen, kontraturik gabe. Fisioterapia ikasten nuela jakin zutenean, tratamendua eskatzen zidaten, baina ordaindu gabe.

Zenbait urtez zerbitzari aritu nintzen. Askotan gaizki sentitzen nintzen atzerritarra eta emakumea izateagatik. Zenbait nagusik sexualki jazartzen ninduten. Boluetan, nagusiak biltegian sartu ninduen gauzak non zeuden erakusteko; atea itxi zuen, heldu egin ninduen eta musuka hasi zitzaidan, indarrez. Alde egin nuen, eta ez nuen harekin berriro hitz egin nahi izan. Gaueko pub batean, nagusiak etxera eraman ninduen. Bat-batean gelditu eta ukitu nahi izan ninduen... oso gogorra izan zen... baina frogarik ez duzunez, uste duzu inork ez dizula sinetsiko.

Gero alzhemerraren oso fase aurreratuan zegoen adineko emakume bat zaintzen hasi nintzen, gauero; ez nuen gau batean ere atseden hartzen. Eta paperak nituen, baina ez zidaten kontraturik egin. Gero barneko etxeko langile sartzea proposatu zidaten, baina kontraturik gabe; asteazkenetan bakarrik hartzen nuen atseden, goizeko 08:00etatik arratsaldeko 20:00etara. Gainontzeko egunetan 24 orduz egiten nuen lan. 800 € ordaintzen zidaten. Emakumea asko hobetu zen nirekin, eta orduan, kontratua eskaini zidaten. Ez nuen onartu, egunean ez nuelako atseden hartzeko ordu bakar bat ere eta egoerak psikologikoki eragiten ari zidalako. Emakumea asko maite nuen, baita berak ni ere.

Beste lan batean 10 egun iraun nuen. Esan zidaten ohean zegoen 95 urteko emakume bat zaintzeko lana zela, baina beste hiru pertsona zeuden: iloba eta bere senarra eta 35 urteko seme bat. Denbora gutxian, ilobak tratatu txar psikologikoak ematen zizkidala sentitu nuen. Janaria prestatu, garbitu eta emakumea zaindu behar nuen, baita emakumea mugitu ere, eta asko pisatzen zuen. Bakarrik ezin nuenez, laguntza eskatzen nuen, eta ilobak esaten zidan berak ezin zidala lagundu. Ez nuen niretzako logelarik; ohe batean egiten nuen lo, baina gela hori semearen ikasketa-gela zen egunean zehar. Egoteko, sukaldea besterik ez nuen.

Ondoren, beste etxe batean egon nintzen barneko etxeko langile, kontraturik gabe. Parkinsona zuen emakume bat zaintzeko zela esan zidaten, baina gero ikusi nuen emakumeaz gain gizona ere zaindu behar nuela, eta erabateko demenzia zuen. 900 € ordaintzen zidaten eta astean zehar hiru egunean hiru orduan baino ez nuen atseden hartzen. 4 egun jarraian egiten nuen lan, asteburuak barne. Kontratua eskaini zidaten gurasoak hobeto zeudela ikusi zutenean. Ez nuen onartu, ezin niolako erritmoari eutsi. Etxeko lan guztiak egin behar nituen, biak paseatzera atera, biak garbitu, orraztu, janaria prestatu, etxea garbitu... Gizona dutxatzen nuenean, ni ukitzen saiatzen zen. Nik ez nion uzten eta pentsatzen nuen adinagatik eta gaixotasunagatik egiten zuela. Azkenean, utzi egin nuen lana, psikologikoki jasanezina zelako.


Barneko etxeko langile gisa jarduteak trauma bat eragin zidan. Orain 18 hilabete daramatzat etxe batean lanean, kontraturik eta aseguruik gabe eta orduko kobratzen. Larunbat eta igandetan ere lan egiten dut eta ordu kopurua haien beharraren arabera aldatzen da. Lan egiten ez badut, ez dut kobratzen, ezta gaixorik banago ere. Oraindik ez dut oporrik izan. Beste lan bat bilatzen ari naiz, baina behin baino gehiagotan gertatu izan zait Marokokoa naizela esan eta orduan nahi ez dutela sentitzea.

Elkarte bateko pisu batean bizi naiz eta bertan nago errolatuta. Nire ametsa da karrera amaitzea, ekonomikoki independente izatea, lagun gehiago izatea eta nire familiarekin harreman estuagoa izatea. Orain hobeto ezagutzen dut neure burua, eta nire bizi-proiektua gauzatu ahal izango dudala uste dut.

* Arabieraz askatasuna esan nahi du. Niretzat emakume gisa baldintzatzen gaituzten gauza askoz askatzea da.

Pentsazen...

Zure ustez, zein eskubide urratzen dira, eta zergatik?



Eskubide-urraketei buruzko gako sozio-juridikoak*:

Etxeko langile askok beren lanetan jazarpena edo eraso sexual motaren bat jasaten dute. Oso garrantzitsua da halakoak ikusaraztea, aholku bila jotzea eta ez isiltzea. Izan ere, askotan, beldurragatik edo lotsagatik, ez da ezer esaten. Zorionez, gero eta emakume langile gehiago animatzen dira halakoak salatzea.

Etxeko langile bati, printzipioz, bai etxeko lanak bai pertsonen zaintze-lanak egiteko eskatu ahal zaio. Gehiegikeriarik gerta ez dadin, komeni da kontratuan zehaztea zer lanetako enplegatzen gaituzten.

Barneko langileek atsedenerako eskubidea dute, gutxienez bi ordu egunean eta 10 ordu gauetan, lanaldi batetik besterako tartean. Eta asteen behin, normalean aste-bukaeretan, 36 orduko atsedena izan behar dute.

Langile guztiek dute urtean 30 eguneko oporrak eta 14 jaiegun izateko eskubidea, lanaldi mota zeinahi dela. Denbora horretan ez daude lan egitera behartuta, lan-denbora balitz bezala kobratu behar dute eta egun horiek ez dituzte errekuuperatu behar.

Nahiz eta legeak ez dioen ezer honen inguruan, barneko langileek lan egiten duten etxean beren logela izan behar dute, baldintza egokietan eta intimitaterako eskubidearekin batera.

Pertsonen arteko edozein harremanetan, tratatu onak, edukazioak eta errespetuak berezkoa izan beharko luke, baita lan-esparruan ere, eta ez dugu eskubide-urraketarik onartu behar "ondo tratatzearen" ordainetan.

* Erreferentzia arauemaileak :

- Real Decreto 1620/2011, de 14 de noviembre, por el que se regula la relación laboral de carácter especial del servicio del hogar familiar.
- Real Decreto-ley 29/2012, de 28 de diciembre, de mejora de gestión y protección social en el Sistema Especial para Empleados de Hogar y otras medidas de carácter económico y social (BOE de 31 de diciembre de 2012)
- Ley 27/2011, de 1 de agosto, por la que el Régimen Especial de la Seguridad Social de las Empleadas de Hogar queda integrado en el Régimen General de la Seguridad Social. Mediante el establecimiento de un Sistema Especial para Empleados Hogar.

FÁTIMA

Amatasun-baja izateko eskubiderik gabe



Fátima* naiz, Marokoko Settat hirikoa. Ezkonduta nago eta urtebeteko haurtxo bat daukat. Oraindik ezin izan dut inolako prestakuntzarik egin, ezta nire ikasketak homologatu ere.

2005ean Bilbora etorri nintzen, hemen familia eta harremanak zituen lagun batek gomendatu zidalako eta laguntza eskaini zidalako. Nire lehenbiziko lana hari esker aurkitu nuen, etxe batean, kontraturik gabe. Iritsi nintzenetik, 4 aldiz aldatu dut lana eta bi lan batera uztartu izan ditut. Lan guztiak etxeko lanak izan dira. Nire enplegatzaileak Bilboko (Indautxu), Sopelako eta Algortako irakasleak, aseguru-langileak, baku-langileak eta abar izan dira. Orain Egoitza eta Lan Baimena daukat, 5 urterako.

Lan batean barneko etxeko langile aritu nintzen bi hilabetez, baina utzi egin nuen, baldintzak neurrigabekoak iruditzen zitzaizkidalako. Askotan ezjakin edo ezikasi gisa tratatu izan naute, atzerritarra izateagatik eta hizkuntza ongi ez ezagutzeagatik. Halaber, beloa kentzeko ere errepikatu izan didate maiz, hemen lan hobeak aurkitzeko.

Emakume bat zaintzen egon nintzenean oso tratu ona jaso nuen, bere seme-alabek harreman ona baitzuten nirekin. Errespetuz tratatze nindutela eta baloratzen nindutela sentitzen nuen, baina lana amaitu egin zen, emakumea egoitza batera eraman zutelako.

Nire azken lanean oso esperientzia latza bizi izan nuen enplegatzailearekin. Haurdun nengoela jakin zuenean, etxebizitzan lan arriskutsuak egiten jarraitzera behartu ninduen eta hamabi egun lehenago kaleratu ninduen inolako kalte-ordainik eman gabe eta amatasun-baja izateko eskubidea eman gabe. Inolako diru-sarrerarik gabe geratu ginen. Likidazio hori epaiketa bidez erreklamatu behar izan dut. Etxeko Langileen Elkartean abokatu baten kontaktua eman zidaten.

Orain ez dut lanik egiten, 8 hilabeteko nire haurtxoa zaintzen dut, eta beste haur bat izan nahi dugu. Alokaturiko etxebizitza batean bizi gara. Nire senarra prestakuntza jasotzen ari da eta elkarrekin bizi gara.

Ez dugu Marokora itzuli nahi eta ez daukat nire erretirorako planik. Prestakuntza jaso nahi nuke enplegu hobeak lortzeko, eta ingelesa ikasten jarraitu nahi dut.

Etxeko zerbitzuetan lan egiten dugun langile etorkinok langabeziarako eskubidea izatea nahi nuke eta gure amatasun-bajarako eskubidea errespetatu dadila. Bertakoek aurreiritzirik ez izatea nahi nuke, ez bainaute ezagutzen; aurreiritzi horiek bertako hizkuntzan hitz egitea kostatzen zaidalako besterik ez dira.

* Izen arabiar oso ezaguna da eta, gainera, oso maite dudana nire ahizpa ekartzen dit burura.

Pentsazen...

Zure ustez, zein eskubide urratzen dira, eta zergatik?

Eskubide-urraketei buruzko gako sozio-juridikoak*:

Kontratua amaitzen bazaigu, familiak zaintzen dugun pertsona nagusia egoitza batera eramatea erabakitzen duelako, kalte-ordaina eman behar digute, hiltzen denean bezala, hau da, hilabete bateko soldata osoa.

Enplegatzaileak edozein unetan hautsi dezake kontratua. Kasu horretan, likidazioa eta, gainera, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea daukagu. Kontratua hautsi dezake atzera-egitearen bidez (idatziz jakinarazita 7 edo 20 eguneko aurrerapenarekin, eta, kalte-ordaina emanaz: lan egindako urte bakoitzeko, 12 soldata-egun) edo, bestela, kaleratzearen bidez. Kaleratzea bada, kalte-ordaina 20 soldata-egun dira lan egindako urte bakoitzeko.

Kaleratzen bagaituzte, kontuan hartu behar dugu erreklamaziorako epea; izan ere, jakinarazten digutenetik 20 egun baino ez ditugu horretarako. Haurdun gaudela edota haurra izan ondoren kanporatzen bagaituzte, babes berezia dugu legearen aldetik. Egoera horretan bagaude, aholku bila jo behar dugu.

Kontuz borondatezko bajekin! Izan ere, kasu batzuetan enplegatzaileak, langileari Gizarte Segurantzaz baja emanda, argudiatzen du langileak bere borondatez utzi duela lanpostua, nahiz eta egia ez izan. Kasu horretan, Gizarte Segurantzak borondatezko baja balitz bezala erregistratzen du, eta horrek edozein gizarte-laguntza jasotzeko bidea ixten digu edo, migratzaileak bagara, arazoak izan ditzakegu baimenak lortzeko edo berritzeko orduan.

* Erreferentzia arauemaileak:

- Real Decreto 1620/2011, de 14 de noviembre, por el que se regula la relación laboral de carácter especial del servicio del hogar familiar.
- Real Decreto-ley 29/2012, de 28 de diciembre, de mejora de gestión y protección social en el Sistema Especial para Empleados de Hogar y otras medidas de carácter económico y social (BOE de 31 de diciembre de 2012)
- Ley 27/2011, de 1 de agosto, por la que el Régimen Especial de la Seguridad Social de las Empleadas de Hogar queda integrado en el Régimen General de la Seguridad Social. Mediante el establecimiento de un Sistema Especial para Empleados Hogar.

DUNIA

Urdina eta beltza



Dunia* naiz, Guinea Bissaukoa. 48 urte ditut eta 3 seme eta 5 alaba ditut. DBHra arte ikasi nuen. Tabernetan lan egin dut zerbitzari gisa. 8 seme-alaba ditut. 2001ean Portugalera migratu nuen. Nire aita han bizi zen eta Portugaleko nazionalitatea lortu nuen. Obrak garbitzen jardun nuen. Ondoren, Bilbora etorri nintzen, nebaren etxera. Bi urte igaro zirenean bertan erroldatu nintzen, herrikideak horri buruz hizketan entzun nituenean; gero, txartel urdina atera ahal izan nuen, Europar Batasuneko biztanle gisa. Zaragozako taberna batean egin nuen lan, kontratuarekin, arriskuko haurdunaldia izan nuen arte; orduan, baja eman zidaten.

Bilbora itzuli nintzen eta hemen jaio zen nire alaba, 2005ean. Bizirik irauteko, Frantzia Afrikako produktak erosi eta Bilbon saltzen nituen; janari afrikarra egiten nuen enkarguz, eta atariz atari joaten nintzen garbiketa-zerbitzuak eskainiz. Noizean behin baino ez zidaten deitzen. Portugalera itzuli nintzen lan egitera, nire senarrari bere bisarako dirua bidaltzeko. Lan handia egin genuen lehendabizi gure alabak ekartzeko. Guinea Bissaun bi seme zaharrenak bakarrik geratu ziren. Bilbora itzuli ginen eta ez genuen lanik topatzen. DSBE laguntza eskatu genuen, eta horrekin biziraun genuen laguntza kendu ziguten arte; orduan, Londresera joan ginen. Bertan urtebetez egin nuen lan, baina nire ama gaixotu egin zen eta alaba txikienarekin ama zaintzera joan ginen. Bilbora itzuli eta bertan geratu ginen, nire alaba txikia ez zelako Londresera egokitu. Nire beste alabak eta semea Londresen geratu ziren.

Azkenean, 2015ean, etxeko lan bat aurkitu nuen, andre bat zaintzen. Emakumearen alboko ohe batean egiten nuen lo, baina gauetan esnatu egiten ninduen. Bilbotik ordubetera dagoen herri batean bizi zen. Barneko etxeko langile gisa egiten nuen lan eta nire alaba neba nagusiarekin geratzen zen, hilabete batzuk geroago iritsi baitzen Bilbora. Astelehenetik ostegunera egiten nuen lan, goizeko 05:00etatik, hurrengo eguneko 10:30era arte, eta asteburuetan ostiral arratsaldetik asteleheneko 10:30era arte. Asteko 4 egunetan 4 orduz bakarrik hartzen nuen atsedena. Kontratua egin zidaten, baina legeak dionenaren azpitik ordaintzen zidaten, eta nik ordaindu behar nuen gizarte segurantzaren erdia.

Senarrak lantegi batean egiten zuen lan, mekaniko, eta emazteak ikastetxeentzako bazkari-zerbitzu batean. Ez ziren arrazistak, baina bai esplotatzaileak. Saiatu nintzen haiekin negoziatzen igande arratsaldeak libre izateko, nire alabari eskolako lanekin lagundu ahal izateko. Baina ez zuten onartu. Izan ere, asteburuetan herrira joaten ziren deskantsatzera, eta ni ama zaintzen geratzen nintzen. Nire alaba ni ikustera etor zitekeen, baina nik etxean egon behar nuen harekin. Igande arratsalde batean nire alabarekin joaten uzteko eskatu nien. Asko haserretu ziren eta ez zidaten emakumea zaintzen utzi. Orduan, joan egin nintzen.

Borondatezko baja emango zidatelakoan kezkatuta orientazioa eskatu nuen. Kontziliazio bileran kale-atzea negoziatu zen eta RGla eskatzeko paperak presentatu ahal izan nituen.

Nire alaba pozik dago hemen. Ikasle ona da, eta saskibaloi jokalaria aparta. Nire bizitza hemen dago. Nire beste alabek eta semeak Londresen jarraitzen dute, eta beste seme batek Guinea Bissaun jarraitzen du, etortzeko aukeraren zain. Nire ametsa lana aurkitzea da, baina arrazismoa dagoela ikusten dut; curriculumak bidaltzen ditut, baina ez didate deitzen. Europako biztanlea naiz, txartel urdina daukat, baina...

* Duniak "Munduko Andrea" esan nahi du, arabieraz.PL

Pentsazen...

Zure ustez, zein eskubide urratzen dira, eta zergatik?

Eskubide-urraketei buruzko gako sozio-juridikoak*:

Etxe-langile baten soldata, gutxienez, lanbidearteko gutxieneko soldataren parekoa da, eta egiten dugun lanaldiaren arabera izango da. Gainera, aparteko ordainsariak jasotzeko eskubidea dugu, eta horien zenbatekoa kasu bakoitzaren arabera izango da. Aparteko ordainsariak sei hilabetean behin ordaindu daitezke, edo hilero, soldatarekin batera.

Gizarte Segurantzari hilean ordaindu beharrekoa (kuota) soldataren arabera da. Langileak kuotaren oso zati txiki bat bakarrik ordaindu behar du; zati handiena enplegataileak ordaindu behar du. Ez dira legeak langileak kuota osoa edo dagokionaren baino zati handiagoa ordaintzeko egiten diren hitzarmenak.

Halako "hitzarmenak" ohikoak dira, batez ere langile migratu bati erregularizatzeko paperak egiten zaizkionean, hau da, Gizarte Segurantzako kuota osoa ordaintzera behartzen dute baimenak lortzearen ordainetan.

Langileari legeak dioenaren azpitik ordaintzea ere ez da legekoa.

Etxeko langile guztiek dute astean 36 ordu jarraian deskantsatzeko eskubidea (egun eta erdi jarraian). Normalean, baina ez derrigor, aste-bukaeran.

Barneko langileek atsedenerako eskubidea dute, gutxienez bi ordu egunean eta 10 ordu gauetan, lanaldi batetik besterako tartean.

Nahiz eta legeak ez dioen ezer honen inguruan, barneko langileek lan egiten duten etxean beren logela izan behar dute, baldintza egokietan eta intimitaterako eskubidearekin batera.

* Erreferentzia arauemaileak :


- Real Decreto 1620/2011, de 14 de noviembre, por el que se regula la relación laboral de carácter especial del servicio del hogar familiar.

- Real Decreto-ley 29/2012, de 28 de diciembre, de mejora de gestión y protección social en el Sistema Especial para Empleados de Hogar y otras medidas de carácter económico y social (BOE de 31 de diciembre de 2012)

- Ley 27/2011, de 1 de agosto, por la que el Régimen Especial de la Seguridad Social de las Empleadas de Hogar queda integrado en el Régimen General de la Seguridad Social. Mediante el establecimiento de un Sistema Especial para Empleados Hogar.

ESTRELLA

Neure burua defendatzen ikastea



Estrella* dut izena, Nikaraguakoa naiz, eta ezkongabea. Kontabilitateko laguntzaile ikasketak ditut; hau da, batxilergoaren ondorengo erdi mailako ikasketak. Espainiara etorri aurretik, Administrari laguntzaile gisa lan egin nuen azkenekoz, Hondurasko eraikuntza-enpresa batean.

Euskal Herrira 2013ko irailean etorri nintzen, nire herrialdetik Bilbora zetorren neska bat ezagutu nuelako. Berak esan zidan pasatzea lortzen bazuen nire zain egongo zela. Oraindik ez daukat ez Egoitza ez Lan Baimena.

Espainiara etortzeko erabakia erokeria hutsa izan zen. Nire amagatik egin nuen, pobreziatik irten dadin, eta nigatik ere bai. Mundu guztiak Espainiari buruz hitz egiten duenez, ilusioz bete nintzen... eta orain ikusten dut gezurra dela, akats bat.

Hemen zegoen neskak familia batean eman zidan lana, bi haur zaintzen. Ez nuen kontraturik izan. 07:45etik 21:00era egiten nuen lan, ordubeteko atsedenarekin. Larunbateko 14:00etan irten eta asteleheneko 07:45ean sartzen nintzen. Azkenean, utzi egin nuen lana, itota eta nekatuta nengoelako; ez nuen nola nengoen adierazi eta zailtasun guztiak bakarrik igaro nituen.

Gero beste lan batzuk izan nituen. Adineko pertsona bat zaintzen egon nintzen hilabete eta erdiz, baina joan egin nintzen, alzheimerarekin hasi zelako. Familia-gatazka une batean hasi nintzen bertan lanean, eta horrek niri ere eragin zidan. Emakumeak ez zuen nirekin egon nahi, inorekin ez, egia esan, eta egoterra okerrera egiten hasi zen. Oso modu txarrean joan nintzen: semea esan nion bere amak ez zuela nirekin egon nahi, eta ez zizkidan Aste Santuan lan egindako egunak ordaindu, bere iritziz ez nituelako merezi eta ez nuelako horretarako eskubiderik, joateko erabakia nik hartu nuelako.

Ondoren, barneko etxeko langile gisa sartu nintzen etxe batean. Bertan bizi ziren senar-emazteak oso atseginak ziren. Nik etxeko lanak egiten nituen eta oso ondo egon nintzen, beren alaba bere seme-alabekin bizitzera etorri zen arte. Beste etxeko langile bat ekarri zuen harekin, eta horrek gorriak ikusarazi zizkidan. Nik hartzen nuen lan-kargarik handiena eta hori ez zitzaidan ongi iruditzen. Langile horrek bere lana egiten ez zuela esan nienean, alaba nirekin haserretu zen eta bertatik joan behar izan nuen. Sentitzen nuen ezin zidatela lan guztia niri eman. Senar-emazteekin oso gustura lan egin nuen, baina arazo horrek eragin handia izan zuen nigan.

Beste esperientzia batzuetan, tratu txarra adinekoengandik jaso nuen, baina gaixotasunarekin justifikatzen dut. Justifikatu ezin dena da kontratatzen dutenen babes eskasa, adinekoenganako eta zaintzailearenganako ulermenik eza.

Oro har, neure burua oso gai ikusten dut garbiketa-lanak egiteko eta haurrak zaintzeko. Baina ez dut min eman didan lanik berriro hartuko. Nire ustez, ez diogu denari baietz esan behar lanik gabe geratzeko beldurratik, horrela geure buruari min ematea baino ez dugu lortuko. Amaitzeko, esan nahi nuke, gauza onak eta txarrak alde batera utzita, oso esker onekoa sentitzen naizela eman dizkidaten aukera guztiengatik eta nire gaitasun fisiko eta mentalarengatik. Neure burua aberasten ari naiz, heltzen; orain solidarioagoa naiz, eta neure burua defendatzen ikasten ari naiz.

* Estrella (Izaro). Ni noan tokira dakit nire distira uzten dudala. Guztia gorabehera itzaltzea lortu ez duten izarra naiz.

Pentsazen...

Zure ustez, zein eskubide urratzen dira, eta zergatik?

Eskubide-urraketei buruzko gako sozio-juridikoak*:

Gure eskubideak zein diren jakiteak eta erreklamatzeak batzuetan bere emaitzak ditu, hau da, gure lanak ezagutza jasotzen du eta gure lan-baldintzak hobetu egiten dira. Eta hori gure eta kolektibo guztiaren onerako da.

Lan batean gustura ez bagaude, edozein unetan utz dezakegu. Ezin gaituzte lan batean egotera behartu bertan jarraitu nahi ez badugu.

Lana utzi nahi badugu, komeni da astebete lehenago jakinaraztea enplegatzaileari, eta, hala, likidazioa edo kitapena jasotzeko eskubidea izango dugu: azken hilabeteko soldataren partea eta aparteko ordainsarien eta oporren zati proportzionala.

Egoera irregularrean egoteak (paperik gabe) EZ du eragozpena izan behar gure eskubideak erreklamatzeko edota gehiegikeriak salatzeke. Ez gaituzten kikildu lege-oinarririk gabeko mehatxuak egiten badizkigute, eta bila dezagun beti laguntasuna eta egiazko informazioa.

Nagusiak zein haurrak izan, zaintzen ditugun pertsonekin sortzen den lotura afektiboarekin kontuz ibili behar dugu. Luzera begira, gure kontra jokatu du gure afektuak lan-giroan jartzeak. Garrantzitsua da muga jartzen jakitea. Edukazioz eta errespetuz tratatzeak ez du esan nahi zaintzen ditugunak eta enplegatzen gaituztenak maite ditugula edota gure familiakotzat hartu behar ditugula.

Pertsonen arteko edozein harremanetan, tratu onak, edukazioak eta errespetuak berezkoa izan beharko luke, baita lan-esparruan ere, eta ezin dugu eskubide-urraketarik onartu "ondo tratatzearen" ordainetan.

* Erreferentzia arauemaileak :

- Real Decreto 1620/2011, de 14 de noviembre, por el que se regula la relación laboral de carácter especial del servicio del hogar familiar.

- Real Decreto-ley 29/2012, de 28 de diciembre, de mejora de gestión y protección social en el Sistema Especial para Empleados de Hogar y otras medidas de carácter económico y social (BOE de 31 de diciembre de 2012)

- Ley 27/2011, de 1 de agosto, por la que el Régimen Especial de la Seguridad Social de las Empleadas de Hogar queda integrado en el Régimen General de la Seguridad Social. Mediante el establecimiento de un Sistema Especial para Empleados Hogar.

VALIENTA

Salatzeko beldurra galtzea



Valienta* naiz, Boliviakoa. 50 urte ditut, eta hiru seme-alaba eta senarra Bolivian. Nire herrialdean, ehun-tailer bat genuen, eta senarrarekin egiten nuen lan han. Haurrekin lan egiteko erdi-mailako espezialitate tekniko bat ikasi nuen, eta laguntzaile gisa lan egin nuen zenbait haurtzaindegitan.

2006ko otsailean etorri nintzen Espainiara, lagun baten etxera. Logela partekatu bat alokatu nuen han. Seme-alaben lan-ikasketak ordaindu ahal izateko migratu nuen.

Hainbat elkarteren bitartez bilatu nuen lana, eta bi astera aurkitu nuen bat; 9 urte eta erdi aritu naiz lan horretan. Une batzuetan itzuli egin nahi nuen; ez zen erraza izan etxe horretan lan egitea, baina pentsatzen nuen: "proiektu bat dela-eta etorri nintzen eta ez dut koldarra izan nahi.". 6 hilabetera, erroldatu egin ninduten. "Julia kontratu bat egingo dizugu, edozer gertatu dakizuke eta" esan zidaten 3 urte igaro zirenean.

Han, kanpoko etxeko langile gisa lan egin nuen, 07:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:00etara, astelehenetik ostiralera, eta 900 euro ordaintzen zizkidaten. Oporrak eta aparteko pagak, garai hartako legearekin bat etorritz. 65 urtetik gorako senar-emazte batzuentzat egiten nuen lan. Enpresa bat zuten Etxebarrin, eta haien alabak egiten zuen lan han. Pisu bat zuten Kale Nagusian, beste bat alde zaharrean, etxe bat Laredon eta txoko bat Bilbon. Alaba, dibortziatu, eta gurasoen etxera itzuli zen 2 urteko seme batekin. Bi pertsona zaindu beharrean, hiru zaintzen nituen orduan, eta laurentzako etxeko lanak egin. Kontratuko orduak baino askoz ere gehiago egiten nituen. Alaba bikotekidearekin bizitzera joan zenean ere, haien etxera bidaltzen ninduten lanera.

La 7 urteren ondoren, 07:00etatik 12:30era murriztu zidaten lanaldia, haurra handitu egin zelako eta haiek ez zutelako nire lana oso aintzat hartzen. Haurrek oporrak hartzen zituztenean, Laredora joaten ginen ekainetik irailera, eta orduan barneko etxeko langile gisa aritzen nintzen soldata beraren truke, eta lanordu gehiago izaten nituen. Batzuetan 23:00ak arte lan egiten nuen, eta ez nuen atsedeen-ordurik. Batzuetan asteburuetan lan egiteko eskatzen zidaten, eta esaten zidaten ezin zidatela gehiago ordaindu; nik eskatutakoa betetzen nuen. "Guztirako neska" nintzen.

Kaleratze egoera

Lanaldia murriztu zidatenean, beste lan bat bilatu nuen arratsalderako. "Laredoko oporretan beharko zaitugu" esan zidaten gero, eta nik "ezin dut, zuk hara eramango nauzu eta itzultzean beste lana galduko dut"; eta haiek "behar zaitugu, eta bestela, beste neska bat hartuko dugu". Azkenean esan zidaten beste neska bat hartuko zutela eta Benidormera joango zirela bizitzera. Nik alabarekin gelditzeko ilusioa nuen, 11 urteko haurra zaintzen, baina ez zen hala izan; beste emakume bat kontratatu zuen.

Garai zailak izan ziren niretzat. Justu aurretik, Bolivian, anaia gaixotu egin zen, eta hortik gutxira hil egin zen. Koinata harekin egotera itzuli zen... maiatzean diru asko behar genuen ospitalerako. Urte ugari egon izan nintzen etxean, eta inoiz ez nuen irribarrerik jaso; inoiz ez zidaten galdetu: "Julia, zer moduz zaude?". Haiek bazekiten anaiarena eta oso gaizki ari nintzela pasatzen.

Ekaina izan zen lan egin nuen azken hilabetea. Hilabete erdialdera abisatu zidaten: "zure likidazioa emango dizugu" Nik aholkularitza jaso nuen jada, eta banekien ez nuela ezer sinatu behar. 1404 € ematen zizkidaten guztira: soldataren 500 € eta likidazioaren 900 €. Hori ez zen inondik inora kalte-ordain gisa zegokidana: Denera ia 4000 € zegozkidan.

Izugarri kostatu zitzaidan andreari esatea gehiago zegokidala. Beldur nintzen, Boliviarako diru hori behar nuelako. Azkenean, abokatuari eta Torre de Babeli esker, nire eskubideak defendatzea erabaki nuen.

Salatzeko beldurra galtzea

Nire lagunek epaiketetan ez sartzeko esaten zidaten, arazoak izango nituela. Beldur handia nuen; izan ere, nazionalitatearen paperak sartu nahi nituen, eta legeez ez dakidanez, uste nuen ukatu egingo zizkidatela nazionalitatearen paperak, epaiketan egoteagatik**.

* Valienta fue la manera en que me definí a mi misma una vez que me animé a denunciar: "tengo que ser valienta" me dije.

Gehien animatu ninduen abokatua izan zen. “Ez al duzu zugan pentsatuko? Ez al duzu zeure burua maitatuko? Izan konfiantza, lortuko duzu” Informazio okerragatik erabaki okerra hartuko duzu”. Horixe esaten zidan abokatuak, eta nik zera galdetzen nion neure buruari: “eta zein aukera ditugu?” Abokatuak esan zidan nire kasuan oso argi zegoela eta probak zeudela; horregatik animatzen ninduen.

*Abokatua: Prozesu judizial bikoitz bat hasi genuen: bat kaleratzeagatik eta bestea zenbatekoagatik. Adiskidetze-ekitaldian, alabaren jarrera harroa izan zen. Langile on gisa baloratzen zuen, baina ez zuen ekonomikoki legearen arabera baloratu nahi. Zegokiona baino askoz ere baxuagoa zen eskaintza egin zion. Nire gomendioa izan zen eskaintza ez onartzea eta aurrera jarraitzea. Juliak zalantza egiten zuen: ez dira jende ona izan, baina txarra ere ez... eta haiei hau egitea... Eta nik zera esaten nion: zu pentsatu alderantziz; haiek ez dute zugan pentsatu, pentsa ezazu diru hori beharrezkoa duzula anaiarentzat, eta haiei, dirua izanda ere, ez zaie axola. Alabak ez zion soldata ere eman, nahiz eta mina eman***.*

Aurrera jarraitzea erabaki nuen. Zorionez, abuztuan ordezkapenak egiten hasi nintzen, askok nire herrialdera bidaiatzen dutelako, eta horrek asko lagundu zidan ekonomia aldetik. Nire enplegatzaile ohiek lanpostua eskaini zidaten berriro, baina nik banuen jada beste kontratu bat.

*Abokatua: Lanpostuan berrartzeko eskaintzarekin, langileak uko egitea bilatzen zen. Baina berrartzeko eskaintza hori baldintza eta egoera beretan izan behar da. Gainera, etxeko langileen kasuan Auzitegi Gorenaren Sententziak**** honako hau dio langileak berrartzeari buruz: “ezin da inor behartu etxean izan nahi ez duen norbait berrartzera” eta orain kontuan hartzen du langileak itzuli nahi duen ala ez: “ezin da inor behartu konfiantza hautsi den etxe batera lan egitera itzultzera”.*

Kaleratzeagatik epaiketa urtarrilean izan genuen, eta sententziak ia 3.400 €-ko kalte-ordaina aitortu zidan. Irmoa da jada. Falta ziren zenbatekoen (ia beste 600 €) epaiketa atzeratu egin zen, baina lehenengo sententziarekin, beste hau ere irabazita zegoen. Ezin nuen sinetsi, benetan.

Ikasitakoak eta Etorkizuna

Gainerako kideentzako gomendioa: “borroka daitezela, esaten digutena ez baita egia”. Valienta (ausarta) izaten ikasi dut; dudan esperientzia gutxiarekin, gero eta balio handiagoa ematen diot neure buruari.

Seme-alaben ikasketak direla eta, gauza asko lortu ditut, baina haien maitasuna, konfiantza eta gertutasuna galdu ditut. 5 urteren ondoren haiek ikustera joaten zarenean, konturatzen zara hori guztia aldatu egin dela. Hemen irabazten duzun diruak, beraz, ez dizu maitasuna ematen. Senarrarekin duzun harremana ere zailago bihurtzen da. Hemen bakarrik egotera eta ateratzera ohitzen zara, eta han ez. Bolivian ikusten dut neure burua, haien maitasuna berreskuratzeke borrokan, nahiz eta helduak izan. Nire proiektua han dago, ez hemen, bakardadea dela eta... Urte eta erdiko muga jarri diot neure buruari borrokatzeke eta itzultzeke.


Pentsazen...

Eskubide-urraketei buruzko gako sozio-juridikoak*:

** Ahoz ahoko desinformazioa dago, nahastu egiten dira zigor-arloko prozedurak (pertsona bati delitu bat egin izana leporatzen zaio eta errudun izendatu; eta ondoren, zigor arloko aurrekariak ditu) eta prozesu judizialak (horien bidez pertsona batek justizia eskatzeko eskubidea gauzatzen du).

*** Prozesuak urtebete iraun zuen. Enplegatzaileek abantaila dute; izan ere, askotan langileek enplegatzaileek adiskidetze-ekitaldian eskaintzen dietena onartzen dute, ezin baitute 7-8 hilabete itxaron, salbu eta ez badute azkar beste lan bat edo beste babesen bat aurkitzen.

**** Auzitegi Goreneko lan-arloko Salaren sententzia, 2009ko abenduaren 7koa. Bertan esaten da langilea kaleratu badute, langilea ez dagoela behartuta enplegatzaileak lanpostuan berrartzeko eginiko eskaintza onartzera eta kalte-ordaina jasotzeko eskubidea duela.



Onak praktikatzen duzu
empeladoras-a familien



FELICIDAD

Nire bigarren etxea



Felicidad* naiz, Marokokoa. Jostuna eta diseinatzailea naiz. Karre-ra amaitu nuenean, praktikak egin eta Alemaniako enpresa batentzat egin nuen lan 3 urtez. Ondoren jostintza klaseak eman nituen bi urtez. Gero lanik gabe geratu nintzen eta egoera oso zaila zen. Nire aita gaixorik zegoen, diabetes eta parkinsonarekin; ez zuen erretirorik eta tratamendua oso garestia zen, eta amak ere osasuna zaindu beharra zuen. Horregatik erabaki nuen nire herrialdetik ateratzea.

10 urte igaro dira Bilbora etorri nintzenetik. Iraupen luzeko egoitza-baimena daukat. Iritsi nintzenean, gaztelania ikasi nuen eta zenbait elkarterekin jarri nintzen harremanetan. 4 hilabeteren buruan, lan bat aurkitu nuen, eta orduz geroztik, familia berarentzat lanean egon izan naiz. Familiak Labe Garaietan egiten du lan; oso adeitsuak dira, gizarte-egoeraz kezkatzen dira eta behar dutenei laguntza ematen diete. Haiekin erroldatu ninduten eta abokatuen bidez informazioa bilatu zuten nire paperak izapidetzeko. Ahal bezain laster, lan-eskaintza egin zidaten.

Denbora honetan zehar, familiako beste kide bat banintz bezala tratatu izan naute eta nire kultura ekarpenak ere baloratu izan dituzte: kuskusa eta tajina maite dituzte! Nire familia ikusteko aukera ez izateaz ere arduratzen ziren. Aita hemen lanean nengoela hil zen, baina zorionez, ordurako paperak nituen, eta hortaz, Marokora joateko aukera izan nuen dolua etxekoekin egiteko.

Hasieran barneko etxeko langile gisa aritu nintzen. Etxeko lanez arduratzen nintzen eta aita eta ama zaintzen nituen, bi adineko pertsona. Horretarako beste 3 langileren laguntza nuen: batek asteburuetan lan egiten zuen, beste batek goizetan, eta beste batek arratsaldetan. Lanorduak eta soldata Legearen arabekoak ziren. Egunero, bi orduko atsedanak nituen, eta oporrak errespetatu eta ordaindu egiten zizkidaten.

Emakumea zendu egin zen; espero genuen, nahiko gaixorik baitzegoen, baina gizona hil zenean, ezustean hartu gintuen eta egoerak larritasun handia sorrarazi zidan. Minutu batzuk lehenago ondo baino hobeto zegoen bilobekin jolasean. Baina gau hartan bihotzekoak jota hiltzen ikusi nuen. Inpresio handia izan zen; izan ere, bakarrik egin behar izan nion egoerari aurre, seme-alabak ez zeuden eta. Horrek guztiak shock handi bat ekarri zidan, eta asko kostatu zait bertatik ateratzea. Seme-alabek zegokidan kalte-ordaina eman eta bertan bizitzen utzi zidaten pare bat hilabetez; eta oso gertutik begiratu zioten nire osasunari. Lagun euskaldun batek bere etxean hartu ninduen. "Farah, osatzeko etxe horretatik irten behar duzu", esan zidan, eta azkenean haren laguntza onartu nuen. Orain harekin eta haren alabarekin bizi naiz, eta bertan nago erroldatuta.

Familiako alabetako batentzat lanean jarraitu nuen, kanpoko etxeko langile gisa, eta egun, sei orduz egiten dut lan harentzat goizetan. Gizarte segurantzak ordaintzen dit. Aldi baterako jostun lan bat ere aurkitu nuen. Orain, 4 orduz egiten dut lan beste etxe batean. Gainera, neure burua prestatu ahal izan dut eta Gizarte Erakundetan Mendekotasuna duten Pertsonen Arreta Soziosanitarioa emateko Ziurtagiria eskuratu dut. Orain ohartzen naiz kalitatezko lana egin dudala prestakuntza izan aurretik ere.

Nire ametsa da gustatzen zaidan esparruan lan egitea: modan. Maroko da nire sorterrria, baina Euskal Herria da nire bigarren etxea, hemen jende zoragarriak hartu bainau. Oroimenak gogora ekarri ikus dezaket hamar urte hauek zoriontasunez beteta egon direla.

* Felicidad (zoriontasuna) da nire izenaren esanahia eta hemen eman ditudan 10 urteak deskribatzen dituen hitza.

Pentsazen...

Zure ustez, zein eskubide urratzen dira, eta zergatik?

Eskubide-urraketei buruzko gako sozio-juridikoak*:

Zaintzen dugun pertsona hiltzen bada eta horregatik lana galtzen badugu, likidazioaz gain, hilabete oso bateko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dugu. Kalte-ordaina ez da etxe horretan lanean daramagun denboraren araberakoa, baizik eta beti izango da hilabete bateko soldata.

Nagusiak zein haurrak izan, zaintzen ditugun pertsonekin sortzen den lotura afektiboarekin kontuz ibili behar dugu. Luzera begira, gure kontra jokatu du gure afektuak lan-giroan jartzeak. Garrantzitsua da muga jartzen jakitea.


Etxeko eta zainketa-lanetako langile garen aldetik, garrantzitsua da zaintzen ditugun pertsonak hiltzen direnean baliabideak eta laguntza izatea, halakoetan sortzen diren emozioak ahalik eta ondoen kudeatzen jakiteko. Funtsezkoa da geure burua zaintzen ikastea.

* Erreferentzia arauemaileak :

- Real Decreto 1620/2011, de 14 de noviembre, por el que se regula la relación laboral de carácter especial del servicio del hogar familiar.
- Real Decreto-ley 29/2012, de 28 de diciembre, de mejora de gestión y protección social en el Sistema Especial para Empleados de Hogar y otras medidas de carácter económico y social (BOE de 31 de diciembre de 2012)
- Ley 27/2011, de 1 de agosto, por la que el Régimen Especial de la Seguridad Social de las Empleadas de Hogar queda integrado en el Régimen General de la Seguridad Social. Mediante el establecimiento de un Sistema Especial para Empleados Hogar.

YANAPAI

Haurtzain, haur nintzenetik



Soy Yanapai* de Bolivia. A los 7 años de edad murió mi madre, quedé huérfana y dejé de ir a la Yanapai* naiz, Boliviakoa. 7 urte nituela hil zitzaidan ama. Umezurtz gelditu nintzen, eta eskolara joateari utzi behar izan nion, diru faltagatik. 9 urte nituela, herria utzi eta hirira joan nintzen izeba batekin etxeetan lan egitera. Nik, ordea, ikasteko gogoia nuen oraindik ere. 22 urte nituela, ezkondu egin nintzen, eta hirugarren alabak 2 urte bete zituenean, lehen hezkuntza ikasten hasi nintzen gaueko eskolan. 05:00etan, etxeko lanak eta seme-alabenak egiten nituen; gero, lanera joaten nintzen, eta handik gaueko eskolara. Han ikasi nuen lehen eta bigarren hezkuntza, egunez lan egiten zuten haurrekin batera. Nik ogia saltzen nuen, haiei behar zuten zerbait emateko. Gero, batxilergoa amaitu nuen, helduentzako gaueko eskola batean. Erizaintza ikasten jarraitu nahi nuen, baina ezin izan nuen jada.

Bolivian, 2000. urteko krisiak izugarri eragin zigun; izan ere, gure etxea eraikitzeko mailegu bat genuen, eta zorra 10 mila dolarrera arte igo zen. Bizilagun batzuk Madrilera migratu zuten, eta gauza bera egitera animatu gintuzten. Ikusi genuen onena zela ni lanera etortzea, senarrak lana baitzuen han. Indarra hartu eta "ni joango naiz" esan nuen. Duela 15 urte baino gehiago etorri nintzen, eta 2013tik nazionalitate bikoitza dut.

2004an iritsi nintzen, Areetako ezagun batekin. Nire lehenengo lanean adineko bat zaintzen nuen. Gero, hil egin zen, eta lanik eta likidaziorik gabe gelditu nintzen. 2005. urtetik hona, familia berarentzat lan egiten dut barneko etxeko langile gisa. Lehenengo, ahozko kontratu bat egin zidaten, ez nuelako paperik. 720 euro ordaintzen zidaten, eta bi paga erdi, eta erroldatu egin ninduten. Ahal izan zutenean, idatzizko kontratu bat egin zidaten, eta nire paperak izapidetu nituen. Nire lana haien alabak zaintzea eta garbiketa-lanak egitea da, istripu-arriskua duten horiek izan ezik; nire nagusiak oso zuhurrak dira horrekin. Emakumeak emakumeen nekazaritza-enpresa batean egiten du lan, eta gizonak etxean egiten du lan, kontable gisa.

12 ordu egiten dut lan egunean, bi atsedeen-ordu ditut, baina askotan nahiago dut lana aurreratu eta ordu batez bakarrik atsedeen hartu. Asteburuetan 36 ordutik gora hartzen dut atsedeen; izan ere, ostiraletan 18:00etan irteten naiz eta igande gauean itzultzen naiz, soilik lotara, astelehenean goizean goiz lanean hasteko. Orain 1000 € ordaintzen didate hilabetea, eta 500 €-ko bi paga erdi. Beti izan dut niretzako logela, baina duela 4 hilabete pianoa sartu dute hor, eta astean behin erabiltzen dute. Beste gauza bat ere aldatu da: orain 4 neskatila zaintzen ditut, duela gutxi beste bat jaio delako, eta au-paira ere gurekin bizi da. Bera eta ni desberdin tratatzen gaituztela sentitzen dut.

Tratuari dagokionez, nire nagusia emakume eskuzabala da, konfiantza dugu eta hainbat kontuz hitz egiten dugu: nola nagoen galdetzen dit, nire familia nola dagoen... Gaixorik egon naizenean, medikua-renera lagundu izan dit. Beste nagusia, gizona, hotzagoa da; noizbait haserretu izan zait bere alabek Boliviako esamolderen bat esan dutelako, baina, oro har, errespetutsua da. Alabek ondo tratatzen naute, eta maite naute, nahiz eta nerabezaroan sartzen ari direnez errebelde xamar dauden.

Neure burua lanbide berean ikusten dut etorkizunean, urte batzuez behintzat, seme-alabek ikasketak amaitu eta nik Boliviara itzultzeko aukera dudan arte. Ez dut erretiroa hartzeko planik, uste bainuen etxeko langileek ez genuela horretarako eskubiderik.

* Yanapia izenak lagundu edo sorotsi esan nahi du kitxuaz. Amona emagina nuen, jaiotzen laguntzen zuen, eta niri txikitatik gustatu izan zitzaizkidan haurrak.

Pentsazen...

Zure ustez, zein eskubide urratzen dira, eta zergatik?

Eskubide-urraketei buruzko gako sozio-juridikoak*:

Gizarte Segurantzaren kotizatzen badugu, gure eskubidea da adinagatik lanik egiten ez dugunean erretiro-pentsioa kobratzea. Eskubide hori izateko, baldintza batzuk bete behar dira, eta garrantzitsua da baldintza horiei buruz informatzea. Halaber, baldintza hobeak bermatzeko, espainiar estatuak hitzarmenak sinatuak ditu beste herrialde batzuekin.

Nahiz eta legeak ez dioen ezer honen inguruan, barneko langileek lan egiten duten etxean beren logela izan behar dute, baldintza egokietan eta intimitaterako eskubidearekin batera.

* Erreferentzia arauemaileak :

- Real Decreto 1620/2011, de 14 de noviembre, por el que se regula la relación laboral de carácter especial del servicio del hogar familiar.
- Real Decreto-ley 29/2012, de 28 de diciembre, de mejora de gestión y protección social en el Sistema Especial para Empleados de Hogar y otras medidas de carácter económico y social (BOE de 31 de diciembre de 2012)
- Ley 27/2011, de 1 de agosto, por la que el Régimen Especial de la Seguridad Social de las Empleadas de Hogar queda integrado en el Régimen General de la Seguridad Social. Mediante el establecimiento de un Sistema Especial para Empleados Hogar.

CORAZÓN

Pozik nago hemen



Corazón naiz; El Salvadorren jaio nintzen eta hiriburuan bizi. Osasunaren arloko batxilergoa egin nuen, eskolaurreko irakaslea naiz eta hezkuntza-zientzietan lizentziatuta nago. Ikasten eta lanean ari nintzen bitartean egin nituen nire karrerak, lan kualifikatu eta ongi ordainduetan: erizaina izan nintzen, gerran GKE bateko erreportari izan nintzen eta hamar urtez erizain eta instruktore lanak egin nituen polizia nazional zibilarentzat. Estatu Batuetara migratu nuen hiru urtez. Oso gogorra izan zen, bertan hispanoen artean lehiakortasun handia dagoelako, eta familiaren babesa falta nuelako. El Salvadorrera itzuli nintzen eta han gestoria batean egin nuen nire azken lana, laguntzaile gisa.

Oñatira iritsi nintzen El Salvadorreko alkate talde batekin, gestorearen laguntzaile gisa. 15 egunerako etorri ginen, baina Oñati gustatu zitzaidan; berdeguneak, lasaitasuna, eta bertan geratzea erabaki nuen. Gela bat alokatu eta lana bilatzen hasi nintzen. Bi asteren buruan zerbitzari lan bat aurkitu nuen mendiko hotel batean. Gero, sukaldari lan bat aurkitu nuen, baina ez zuten paperik egiten. Beste emakume batek kontratua egin zidan, eta tabernakoei esan nienean, haiek ere kontratua egitea erabaki zuten. Hiru hilabete geroago, El Salvadorrera itzuli behar izan nuen paperak egiteko. Tabernara itzuli nintzen berriro, Gizarte Segurantzaren alta emanda eta arrazoizko ordutegi eta ordainsariekin.

Gero, urte eta erdiz Oñatin egon ondoren, Bilbora etortzea erabaki nuen; ez nuen inor ezagutzen. 15 egun eman nituen lan bila. Etxeko langile eta zaintzaile gisa aritu nintzen, kontratuarekin eta gizarte segurantzarekin, baina igandean bakarrik hartzen nuen atseden, goizeko 09:00etatik gaueko 21:00etara. 900 € eta aparteko ordainsariak jasotzen nituen. Azkenean, lan hori utzi nuen, ikasi nahi nuelako eta asteburuak libre izan nahi nituelako. Familia horrek beste familia batengana bidali ninduen, asteburuak libre emango zizkidatelako. Baina urte eta erdi geroago, emakumea hil egin zen, eta lanik gabe geratu nintzen. Ondoren ama bat eta bere alaba zaindu nituen, baina kontratua amaitu egin zitzaidan, egoitza batera bidali zituztelako.

Gero, Barakaldoko senar-emazte batzuk zaindu nituen. Beti kontratuarekin, Gizarte Segurantzarekin eta zentzuzko ordainsariarekin. Asteazkenean ez nuen atseden hartzen, baina bi orduak estra gisa ordaintzen zizkidaten. Asteburuan larunbateko 12:00etan irten eta igandeko 21:00etan itzultzen nintzen. Lehenbizi gizona zendu zen; gero, emakumea. Likidazioa eman eta bertan bizitzaren utzi zidaten, beste lan bat aurkitu arte. Tratu ona jaso izan dut, gaixorik egon naizenean ere bai.

Hemen gerontologia eta informatika ikasi ditut. Psikologia ere ikasi nahi nuke, baina garestia da. Nire ikasketak ez ditut homologatu. Nire lan-eskubideen gaineko informazioa daukat.

Erregistratu berri dugun Etxeko Laguntza Zerbitzuen kooperatiba bateko kide naiz. Egun, kooperatibaren bitartez egiten dut etxeko lana eta zaintzaile lana. Horri esker, kooperatibako kideok Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean kotizatu dezakegu, eta langabeziarako eskubidea dugu. Gainera, negozio-ahalmen handiagoa daukagu gure zerbitzuak kontratatzen dituzten familiekin. Ez da erraza, baina merezi du lan-baldintza hobekitzeko borrokatzea.

Hemen jarraitu nahi nuke erretiratu arte. Han ez daukat asegururik. Nire lana gustatzen zait, pertsonak zaintzea; ez nuke aldatuko. Nire semea El Salvadorren dago, 26 urte ditu. Bizitza independentea du, lanean ari da. Oso harreman ona dugu, ia egunero hitz egiten dugu. Pozik nago hemen, lasai, gustatzen zait egiten dudana bizitza.

* Gerran bizitza eman zuen unibertsitateko lagun baten omenez eta oso sentibera naizelako.

Pentsazen...

Zure ustez, zein eskubide urratzen dira, eta zergatik?

Eskubide-urraketei buruzko gako sozio-juridikoak*:

Kontratua amaitzen bazaigu, familiak zaintzen dugun pertsona nagusia egoitza batera eramatea erabakitzen duelako, kalte-ordaina eman behar digute, hiltzen denean bezala, hau da, hilabete bateko soldata osoa.

Kontu handia izan behar dugu enplegu-agentzia pribatuekin (lan egiteko familia bat bilatzen diguten enpresak edo bulegoak, eta kobratu egiten dutenak, guri edo familiei). Horietako askok legez kanpo jarduten dute, gure eskubideak urratzen dituzte eta gure lanaren bidez irabaziak lortzen dituzte.

Edozein irregulartasun sumatuz gero, jakinarazi eta salatu egin behar dugu, beste lankide batzuei gauza bera gerta ez dakien.

Elkarte, sindikatu, kolektibo eta halakoetan antolatzea edota lan-kooperatibak sortzea lagungarria gerta liteke gure ahalduntze pertsonalerako eta kolektiborako eta gu guztion lan- eta gizarte-baldintzak hobetzeko.

* Erreferentzia arauemaileak :

- Real Decreto 1620/2011, de 14 de noviembre, por el que se regula la relación laboral de carácter especial del servicio del hogar familiar.
- Real Decreto-ley 29/2012, de 28 de diciembre, de mejora de gestión y protección social en el Sistema Especial para Empleados de Hogar y otras medidas de carácter económico y social (BOE de 31 de diciembre de 2012)
- Ley 27/2011, de 1 de agosto, por la que el Régimen Especial de la Seguridad Social de las Empleadas de Hogar queda integrado en el Régimen General de la Seguridad Social. Mediante el establecimiento de un Sistema Especial para Empleados Hogar.

Zainketa-lanei
eta (des)parekotasunari
buruzko kontakizunekin
lotutako elkarrizketak



2. Zainketa-lanei eta (des)parekotasunari buruzko kontakizunekin lotutako elkarrizketak.

Hemen biltzen diren 13 kontakizunak behin eta berriz kontatu beharreko bizipenak dira, eta beste ahots askoren oihartzunari batuz zabaltzea dute helburu. Kontakizun bakoitzak zainketen antolaketa sozialarekin lotutako oinarrizko auzi bat lantzen du; auzioi, jakina, tartean diren gizarte-eragileekin batera heldu behar zaie. Horretarako, beharrezkoa da elkarrizketa- eta sentsibilizazio-guneak sortzea. Horretan, kontakizun hauek oinarri aparta ematen digute.

Kontakizun hauek bildu izanak ahalduz pertsonal eta kolektiboari ekarri dizkion ondorioez gainera, bada beste kontu bat ere ilusio handiz bizi izan duguna: kontakizun hauek aukera eman digute aurkezpen publiko eta tailer bana antolatzeko, eta horrek zenbait eragileren arteko elkarrizketa bultzatu du, sentsibilizazio-prozesu bat abian jartzeaz batera. Hori guztia elkarlanean egin dugu, noski: batetik, Babelgo Dorrea taldeko kideen babesa eta konplizitatea jaso dugu; eta tartean izan dira, halaber, beste talde eta elkarte askotako lagunak.

Eztabaidarako gune ireki, horizontal eta abegitsu bat eraikitzea lortu dugu denon artean, eta hortxe aritu dira, buru-belarri lanean, kanpoko nahiz bertako etxeko langile eta zaintzaile ugari, familia enplegatzailleak, zainketa-lanekin eta genero-berdintasunarekin konprometituta dauden ezin konta ahala ama, alaba, errain eta ahizpa, lan-bitartekari eta immigrazio- nahiz berdintasun-teknikariak, mugimendu feminista-kideak, eta abar. Hona hemen denon artean landutako helburu eta proposamen-etako batzuk.



2.1 Erronkak eta proposamenak¹

Hainbat jatorri geografikotako ehun lagun baino gehiago, enplegatuak zein enplegatzaileak, elkartu ziren Zaintza- eta (des)parekotasun-historiak lantegian eta argitalpenaren aurkezpe-
nean eta Euskal Herrian etxeko lanetan eta zaintzan diharduten hamahiru emakume mi-
gratzailearen historiak entzun zituzten. Arratsaldeko lehenengo ekitaldian, protagonistek
beren historiak kontatu zizkiguten eta horrek balio izan zuen denok bat etortzeko eta elkar
hartuta enpatiaz alternatibak eta proposamenak bilatzen hasteko, honako helburu hauekin:

- Euskal gizartean zaintza beharrak zein diren bistaratzea eta horretaz gogoeta egitea.
- Etxeko lanean eta zaintzan aritzen diren langileen lan baldintzak balioetsi eta hobetzea.
- Etxeko lanean eta zaintzan aritzen diren langile migratzaileek duten zaugarritasun-egoera berezia berrikustea.

Ez da erraza bisitutakoa hitzez adieraztea. Bakarkako esperientzia- eta ahots-koru hura entzuteak agerrarazi zigun egoera horiek ez direla egoera isolatuak. Kontakizunek puntu gehiegi dituzte amankomunean.

Horietan oinarri harturik, talde-lanean hasi ginen. Talde txikiak egin genituen eta denen artean saiatu ginen historia bakoitzean zer eskubide urratzen ziren identifikatzen eta maila guztietako alternatibak pentsatzen eta proposatzen.

Denen arteko bileran, kontzeptuak eta ideiak jaso genituen mapa batean, eta mapa horretan oinarrituz finkatu genuen zein ziren aurre egiteko erronkak eta ekintzarako proposamenak. Jarraian jasota daude.



¹Zaintza- eta (des)parekotasun-historiak” izeneko lantegian eta argitalpenaren aurkezpenean egindako mapeoaren sistematizazio txikia. Lantegi eta argitalpenaren aurkezpen hori Ignacio Ellacuria Fundazioak antolatu zuen 2017ko maiatzean eta honako entitate hauek aritu ziren harekin elkarlanean: SSI taldea, Religiosas de M^a. Inmaculada Gizarte Zentroa, “Argitan” Emakumeentzako Aholku Etxea, “Sorgin eta Anitzak”, “Babel” Munduko Emakumeak eta Deustuko Unibertsitatearen Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea

LAN HARREMANAREN PROTAGONISTAK:*Etxeko lanean eta pertsonen zaintzan aritzen diren langileak*

Identifikatutako erronkak

- Bi aldeen beharrak eta desirak zein diren aktiboki elkarri entzun eta haietaz gogoeta egitea
- Eskubideak eta eginbeharrak dituzten pertsonak direla jabetzea eta babestea.
- Sozialki zer leku esleitzen zaien berrikustea: gutxiestea, isolatzea, indibidualizatzea, sarerik ez izatea.


Legeriak, gobernuek eta gaur egungo gizarteak ez diete entzuten ez emakume langile migratzaileei, ez zaintzaren premian dauden pertsoneri.

Beharrak, desirak, eskubideak eta eginbeharrak direla eta, etxeko langileek autoestimua eta lan horrek berekin dakartzan karga emozional zein afektiboak landu beharraz hitz egin zuten. Eta beste hainbat gai ere aipatu zituzten: atsedenaldiez eta berentzako tarteez baliatzea, autozaintzari eta osasun fisiko zein psikikoari lehentasuna ematea, beren proiektu eta interes pertsonalen alde borroka egin beharra.

Halaber, esan zuten haientzat funtsezkoa izan zela espazio kolektiboetan parte hartzea, elkarte eta taldeetan izen ematea eta beste pertsona batzuekin itunak egitea. Zeren eta, beste emakumeekin esperientziak trukatzeko eta beste historia batzuen berri izatean, eskubideen jabe direla jakin baitute eta beren eskubide zein betebeharrei buruzko informazioa eta prestakuntza jaso baitute.

Zaindutako pertsonak direla eta, gogoeta egin zen haien izaerari buruz. Askotan, zaindu beharreko pertsonak zer nahi duten eta zer espero duten entzun gabe eta kontuan hartu gabe egiten dira kontratazioak eta zehazten dira funtzioak eta zereginak. Ez da izaten erraza ohartzea zaintzapeko pertsonak –zaintza-harremanen esparruan– autonomia dutela maila batean edo beste batean, eta maila hori murriztu edo handitu daitekeela; aintzat hartu behar dira eta erabakitzeko hitza eta gaitasuna dutela sentiarazi behar zaie.

Zaindutako pertsonen eta zaintzaileen artean izaten den lotura edo harremana dela eta, afektibotasunaren gaia sortu zen. Zaindutako pertsona asko abandonuan eta isolatuta daudela ere maiz adierazi dute langile migratzaileetako batzuek. Estimatu eta maitatuta sentitzeko elkarrekiko beharra izaten dutela ere esan ohi dute. Baina afektibotasunaren alderdiari ezin zaio pertsonen eskubideen errespetuari baino balio gehiago eman. Lan-harremanak errespetuz eta tratu egokia emanez jorratu behar dira, elkarrekiko enpatiaz eta dibertsitatei men eginez.



Esku hartzeko proposamenak

Gizartea

- Bistaratu eta aitortu sozialki etxeko lanak eta zaintza-lanak.
- Desmuntatu aurreiritziak, hartu geure gain dibertsitateak eta garatu enpatia-gaitasuna.

Estatua, EAE eta administrazio publikoak

- Egin sentsibilizazio-kanpainak etxeko lanetan eta zaintza-lanetan diharduten langileen eskubideei buruz, bai eta zaintza jasotzen dutenen pertsonen eskubideei buruz ere.
- Ezarri zaintza politika publikoak zaintzaileentzat eta zaindutakoentzat: osasuna eta ongizate emozionala zein fisikoa (langileak barne hartuta).
- Aholkuak eta laguntza eman bai zerbitzu hori kontratatzen duten familiei, bai langileei, haien eskubide eta betebeharrak direla eta.
- Ezarri kategoriak erantzukizunen eta funtzioen arabera, etxeko lanen eta zaintza-lanen beharrak eta intentsitateak kontuan harturik.

Elkarteak eta komunitatea

- Eman laguntza langileei beren eskubide eta betebeharrak beren gain har ditzaten eta batez ere atsedenaldien garrantziaz jabetu daitezen.
- Lagun egin eta sentsibilizatu langileak, zaindu beharreko pertsonak errespetuz eta profesionaltasunez trata ditzaten: "zaindu besteak, besteek zu zaintzea nahiko zenukeen bezala".
- Sortu sareak eta itunak kolektiboen, sindikatuen eta abarren artean, norbanakotasunetik kolektibitatera jauzi egin eta "hemengo" eta "hango" emakumeak eta pertsonak batzeko.
- Garatu kanalak zaindutako pertsonak beren beharrei, espektatibei eta desirei buruz esateko dituztenak aktiboki eta enpatikoki entzuteko.
- Estatuaren laguntzaz, bermatu gizarteratze-ibilbideak garatzeko behar diren baldintzak, isolatzeko joerak saihestu eta bi aldeek onura izan dezaten.



LEGERIA ETA ERREFORMA BEHARRA.

Identifikatutako erronkak

- Berretsi Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena eta 201. Gomen-dioa.
- Erreformatu 1620/2011 Errege Dekretua, etxeko enpleguaren araubide be-reziaren lan-baldintzak arautzen dituen, eta 27/2011 Legea, Sektorearen Gi-zarte Segurantzari buruzkoa.
- Espainiako Estatuaren Atzeritartasun Legea.

Bi kontu nagusi jaso dira: Alde batetik, aitortuta dauden eskubideak bermatu eta errespetatu beharra, eta, bestetik, eskubideak benetan parekatu eta gaur egungo le-geria erreformatu beharra, honako hauek lortu asmoz:

- Langabezia-asegurua aitortzea.
- Laneko Arriskuen Legean integratuta egotea.
- Gauda igarotzeko erregimena arautzea.
- Emakume migratzaileak eta egoitza-baimena eta lan-baimena gi-zarte sustraitzearen bidez eskuratzeko "itxaron" beharreko hiru ur-teak.

Illo horretan, garrantzizkoa da Espainiako Estatuak LANEren 189. Hitzarmena berres-tea. Hartara, bere gain hartuko bailuke Estatuaren legeriak kontuan hartzen ez dituen zenbait auzi arautzeko konpromisoa.

Esku hartzeko proposamenak

Gizartea


- Mobilizatu eta eragin Espainiako Estatuak 189. Hitzarmena berrets dezan.
- Kanpainak abian jarri etxeko lanarekin eta atzeritartasun-legearekin lotutako araudia erreformatzeko.

Estatua

- Berretsi LANEren 189. Hitzarmena eta erreformatu etxeko enpleguaren araub-idea, eskubideen benetako parekatzea lortzea xede harturik.
- Berrikusi eta erreformatu atzeritartasun-legea, toki-gizarteak zaintza be-harrak bere gain hartu eta langile migratzaileek beren eskubideak baldintza berdintasunean erabil ditzaten.

EAE eta administrazio publikoa

- Diseinatu politikak eta tresna juridikoak, kontraturik gabe lan egiten duten migratzaileak eta hiru urtean segidan egoitza ez izan arren enplegu-eskaintza baten jabe direnak erregularizatzeko.



LAN ESKUBIDEEN BERRI IZATEA ETA HAIETAZ BALIATZEA.

Identifikatutako erronkak

- Heziketa eman eta sentsibilizatu eskubideak, betebeharrak eta aukerak direla eta.
- Aholkatu eta zabaldu enplegatzaile eta langileentzat erabilgarri izan daitekeen informazioa.
- Bete eta betearazi etxeko lanean dauden eskubide eta betebeharrak.
- Lan kategoriak zehaztu zeregin, betebeharrak eta erantzukizunen arabera.

Antzeman zen zail egiten dela etxeko lana lana dela aitortzea eta halakotzat hartzea. Askotan, ez gara jabetzen lan honetan lan harreman bat dagoela eta bi aldeek hainbat eskubide eta betebeharrak konplitzeko konpromisoa hartzen dutela.

Eskubide eta betebeharrak buruzko informazioa eza eta ezjakintasuna bai familiei eta enplegatzaileei, bai etxeko lanean eta zaintza lanetan diharduten langileei dagozkie.

Kontratatu den langileak zer eginkizun dituen ez da garbi-garbi jakiten eta, denbora pasatu ahala, eginkizun eta erantzukizun gehiago gehitu ohi zaizkio. Beharrezkotzat jotzen da lanbide kategoriak bereiztea zaintza moten eta intentsitateen arabera eta etxeko lanik egiten den edo ez kontuan harturik. Etxeko langileek etxean bizi diren pertsonen zaintza lanak ere egin ohi dituzte.

Langile migratzaileek beren lan eskubideak erabiltzea dela eta, azpimarratu da garrantzizkoa dela pertsona horiek prestakuntza prozesuetan parte hartzea, eskubide horiek zertan diren konturatzeko eta beren burua langile gisa baliostea. Hala ere, dituzten eskubideak aldarrikatzeko eta negoziatzeko gaitasuna mugatzen zaie beren administrazio-egoerarengatik. Paperik ez duten langileek murriztuta daukate beren lan-eskubideak benetan baliatzeko aukera, eta, batzuetan, baita urratuta ere. Babesa falta zaiela sentitzen dute denek: *"gauza gehiago onartu behar dituzu"* eta *"ezin duzu erreklamaziorik egin"*.

Esku hartzeko proposamenak

Gizartea

- Garatu politikan eragiteko eta jendaurrean agertzeko estrategiak (sinadurak biltzea, kanpainak egitea), eskubideak sozializatu, sentsibilizatu eta aldarrikatzeko.
- Garatu heziketa prozesuak hainbat gizarte-sektoreekin, etxeko langileen eta zaintzaileen enplegua balioets eta errespetatu dadin, haurtzaroan batez ere.

Estatua, EAE eta administrazio publikoa

- Sustatu etxeko emakume langile migratzaile guztien eskubideen erabilera.
- Administrazioek borondate politikoa erakutsi behar dute araudia betearazteko, haren jarraipena kontrolatzeko eta urraketak zigortzeko.
- Koordinatu oinarritzko gizarte-zerbitzuak eta erakunde publiko eta estatuen baliabideak informazioa, prestakuntza eta bitartekaritza hobetzeko gizarte-ekimenekin.
- Hobetu Lanbidearen funtzionamendua lan-bitartekotza dela eta.

ZAINTZA JASOTZEKO ESKUBIDEA

Identifikatutako erronkak

- Zaintzaren kalitatea eta eskuragarritasuna eroste-ahalmenaren arabera.
- Zaintza-lanaren feminizazioa eta prekarizazioa.

Amaieran, eta aurreko puntuarekin loturik, galdera bat sortu zen: ea zer leku hartzen duten gaur egun gizartean zaintza-lanek, lan horiek jasotzen dituztenek eta lan horiek egiten dituztenek.

Krisi ekonomikoa, gizarte-prestazio askotan eta menpekotasun-laguntzetan izandako murrizketak eta lana eta familia bateratzeko zailtasunak aipatu ziren gaur egun kalitatezko zaintza publikoa ematea eragozten duten elementuen artean. Horren ifrentzuan, euskal gizartean gaur egun dagoen zaintza-behar handia betetzen ari da pixkanaka emakume migrazioaileen kontratazio ez-egonkor malguaren bidez.

Zaintza-lanen kudeaketa eta antolamendua esparru pribatuan eta maila indibidualean egiten dira batez ere. Beste egoera batzuetan gertatzen den bezala, zaintza-beharra eskubide gisa ikusi beharrean, merkantziatzat hartzen da, eskaintza-eskarien legeari lotuta.

Dirua duenak zaintza azpiegiturak erabil ditzake, nahi izanez gero, eta horrelakoak ordaindu ezin dituenak estrategiak bilatu behar ditu bizirik irauteko. Badira familia enplegatzaileak, gauzak ongi egin nahi dituztenak, baina ez dute laguntza publikorik, ez eta horretarako behar diren diru-baliabiderik ere.

Esku hartzeko proposamenak

Gizartea

- Lan egin zaintza-lanak gizartean beste modu batean antola daitezzen, banatu lanak eta denborak gizon-emakumeen artean eta kudeatu modu kolektiboan, ahal den neurrian.

Estatua, EAE eta administrazio publikoak

- Hartu zaintza eskubidetzat eta abian jarri zaintza unibertsalerako politika publikoak.
- Atera lanbide hori esparru pribatutik eta indibidualetik eta aurkeztu premia kolektibo gisa. Politizatu zaintza-lana.
- Sustatu lana eta etxea bateratzeko eta erantzunkidetasuna bultzatzeko mekanismoak maila guztietan.

Elkarteak

- Egin elkarten bidez lan hezigarria eta aldarrikatzailea, zaintzaren denborak eta lanak beste modu batean antolatzeko.

Mobilizatzen eta indarrak batzen jarraitzeko akuilutzat hartu nahi ditugu gure arteko eztabaidetatik sortutako helburu eta proposamenak. Pepa Torresek hitzaurrean dioen bezala, langileek beren antolaketa-prozesuak abian jartzeko baliabide pedagogiko aparta da koaderno hau. Beste eztabaida- eta sentsibilizazio-gune batzuk eraikitze balioko duela ere espero dugu. Etxeko langileen eta zaintzaileen eskubideei buruzko laburpen batekin bukatu nahi dugu; eta, bestalde, baliabideen zerrenda bat ere eranstean dugu, etxeko langileentzat, familia enplegatzaileentzat eta esku-hartze sozialaren alorreko profesionalentzat probetxuzkoak izan daitezkeelakoan.

2.2. Etxeko langile eta zaintzaileen eskubideak

Laburpena

Tratu duina.

- ❖ Pertsonen arteko edozein harremanetan, tratu onak, gizabideak eta errespetuak berezkoa izan beharko lukete, baita lan-esparruan ere.
- ❖ Ez dugu onartu behar umiliaziorik, tratu txarrik, jazarpenik, hitzeko erasorik edo eraso fisiko zein sexualik. Gai horietaz hitz egin behar dugu eta laguntza bilatu.

Lansariak.

- ❖ Ezin da lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa izan (707,70€, 2017an, astean 40 orduko lanaldi batengatik).
- ❖ Presentzia-orduak ezin dira izan astean 20 ordu baino gehiago eta orduko 5,54 € ordainduko dira gutxienez.
- ❖ Urtean bi aparteko ordainsari jasotzeko eskubidea duzu, bat ekainean eta beste abenduan, edo urteko 12 hilabeteetan hainbanatuta.
- ❖ Lansariaren zati bat gauzaz ordaintzen bada (ostatua, mantenua, e.a.), zati hori ezin da izan lansariaren % 30 baino handiagoa.
- ❖ Garrantzizkoa da lansariarekin eta ordainketekin batera ordainagiri edo nomina bat jasotzea.

Lanaldia.

- ❖ Lanaldia ezin da izan 40 ordukoa baino handiagoa astean, presentzia-orduak hitzartuak eta ordainduta ez badaude eta 20 ordu gehigarri baino gehiago ez badira.
- ❖ Bukatzen den lanalditik hasten den lanaldira bitarteko tartean gutxienez 12 orduko atsedenaldia egongo da, eta, etxean bertan bizi diren langileen kasuan, gutxienez 10 ordukoa.
- ❖ Etxean bertan bizi diren langileek egunean 2 orduko atsedenaldia izateko eskubidea dute.
- ❖ Astean behin 36 orduko segidako atsedenaldia izateko eskubidea duzu.
- ❖ Lan-egutegian agertzen diren jaiegunak hartzeko eskubidea duzu.

Laneko baja:

- ❖ **Gaixotasun arrunt edo lanez kanpoko istripu batengatik.** 4. egunetik 8. egunera enplegatzailerak ordainduko du, eta 9. egunetik aurrera, Gizarte Segurantzak. Sendagileak baja hori eman badizu, ez duzu lan egin beharrik.
- ❖ **Lanbide-gaixotasun edo lan-istripu batengatik.** Baja hartu eta hurrengo egunetik aurrera kobratzen da. Garrantzizkoa da sendagileari esatea istripua lanean gertatu dela, bai eta zer baldintzatan eta zer substantziarekin lan egiten duzun azaltzea ere.

Eskubidea duzu sendagilearengana joateko eta zure osasuna zaintzeko. Amatasun baja hartzeko eskubidea ere baduzu.

Oporrak.

- ❖ Atsedenaldira 30 egun natural dira, ordainduta, lan egindako urte bakoitzeko. Urtearen barruan hartu behar dira.
- ❖ Garrantzizkoa da oporraldiak lan kontratuan jasota egotea.
- ❖ Segidan edo zenbait alditan har daitezke. Aldi horietako bat atsedenaldira 15 eguneko izango da nahitaez.
- ❖ Adostasunik ez badago, 15 egun enplegatzaileak finkatuko ditu, eta gainerakoak langileak hartuko ditu, nahi duenean.
- ❖ Etxean bertan bizi diren langileak oporraldian ez dira behartuta egongo familiaren etxean bizitzera edo familiarekin batera bidaiatzera.

Lan-harremanaren amaiera.

Etxeko langile baten lan-harremana zenbait arrazoiengatik amai daiteke:

- ❖ **Kontratuaren amaiera:** Azken hilabeteetan lan egindako egunei dagokien soldata kobratzeko eskubidea duzu, bai eta aparteko ordainketen eta oporren zati proportzionalaren **kitapenari** dagokiona ere. Eta lan egindako urte bakoitzeko 8, 9, 10, 11 edo 12 eguneko soldataren adinako **kalte-ordaina** jasotzeko eskubidea ere baduzu.

Beste langile baten ordezkoa bazara, ez duzu kalte-ordainik jasoko, kontratua amaitzean.

- ❖ **Langileak uko egitea:** Azken hilabeteetan lan egindako egunei dagokien soldata kobratzeko eskubidea duzu, bai eta aparteko ordainketen eta oporren zati proportzionalaren **kitapenari** dagokiona ere. Eta aurretiko abisua 7 egun aurretik egin beharko duzu gutxienez.
- ❖ **Diziplinazko kaleratzea:** Idatziz eman behar dizute eta kaleratzearen KAUSAK azaldu beharko dira; bestela, kaleratzea epaiketara eraman daiteke, bidegabekotzat jo daiteke eta kalte-ordain bat jaso ahalko duzu, zerbitzuko urte bakoitzeko 20 soldata eguneko, hamabi hilekoen zenbatekoa gainditu gabe.
- ❖ **Enplegatzaileak atzera egitea:** Idatziz eman behar dizute kontratuaren amaieraren berri eta 12 soldata eguneko kalte-ordaina eman behar dizute zerbitzuko urte bakoitzeko, sei hilekoaren mugapenarekin. Aurretiko abisua 7 egun aurretik egin behar da langileak urtebeteko antzintasuna edo gutxiago badu edo 20 egun aurretik, urtebeteko antzintasuna baino gehiago badu.

Aurretiko abisuaren ondoren eskubidea izango duzu egunean ordubete ordainduta izateko, beste lan bat bilatzeko.

- ❖ **Enplegatzailea hiltzea:** Aparteko ordainketen eta oporren zati proportzionalaren kitapena jasotzeko eskubidea duzu, bai eta soldatako hileko baten adinako **kalte-ordaina** jasotzeko ere, aparteko ordainketen hileko hainbanaketa barne.

Kaleratzea erreklamatzeko eskubidea izango duzu **hurrengo 20 egunean**. Urtebeteko epea izango duzu lansarien edo beste zenbatekoen zordunketak erreklamatzeko.

Kitatze-agiria sinatzean zer sinatzen ari zaren argi ikusten ez baduzu, idatzi **“Ez nago ados”**, eta, hartara, kaleratzearen kalte-ordaina, lansariak edo zorrak erreklamatzeko aukera izango duzu gerora.

2.3 Links Interesgarri batzuk:

GOBIERNO DE ESPAÑA

ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA

Etxeko Zerbitzuen Erregulazio Saila

Etxeko Zerbitzuen Gida

GIZARTE SEGURANTZA

SEPE. ESTATUKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

LAN-IKUSKARITZA ETA GIZARTE SEGURANTZA

GOBERNUAREN BIZKAIKO ORDEZKARIODETZA

EUSKO JAURLARITZA

AHOLKU SAREA. ATZERRITARTASUNAREN ALORREKO EUSKAL ZERBITZU JURIDIKOA.

LANBIDE. EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA

EUSKADIKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA. – Orientazio Juridikoko Zerbitzua

LAGUNTZAILEAK (BILBO HANDIA)

ATH-ELE ASOCIACION DE TRABAJADORAS DEL HOGAR – ETXEKO LANGILEEN ELKAR-TEA (Aholkularitza juridikoa)

ARGITAN. EMAKUMEENTZAKO AHOLKULARITZA-ZENTROA

MARÍA INMACULADA GIZARTE-ZENTROA (Prestakuntza eta lan-poltsa)

I. ELLACURIA FUNDAZIOA (Babelgo Dorrea taldea)

MARIENEA. (Emakumeentzako Informazio Zentroa)

BIZKAIKO MUNDUKO MEDIKUAK

KOSMOPOLIS (Lan-integrazioa eta prestakuntza)

